

# RUFINO ARROLA,

VULKANOREN ATZAMARRAK

*Xabier Amuriza*

RUFINO ARROLA

VULKANOREN ATZAMARRAK





*Xabier Amuriza*

Xabier Amuriza (Etxano, 1941)

Bertsolaritzan, 1980 eta 1982an, Euskal Herriko txapelkun izanaz gainera, hainbat liburu idatzi du: *Hitzaren kirol nazionala*, *Hiztegi errimatua*, *Zu ere bertsolari*, *Bizkaiko bertsogintza I eta II*, *Laurehun herri, mila bertso berri*, *Menditik mundura*, *Agur sagar beltzeran*, *Enaz banaz...*

Nobelagintzan baditu *Hil ala bizi*, *Emea*, *Oromenderrieta*. Hainbat itzulpen egina da, Husley, Lukrezio eta abarrenak. Kantari askori egin dizkio hitzak, azkenengoak Kepa Jukeraren MAREN eta Oskorriren VIZCAYAtik BIZKAIARA lanetan.

Diskoetan baditu *Menditik mundura*, *Herriko plazan*, *Xalbador bat-bateko mirakulua*, *Bizkaiko kopla zaharrak* (Tapia eta Leturiarekin) eta hainbat lan koplarrizari buruz.

RUFINO ARROLA  
VULKANOREN  
ATZAMARRAK

- © obrarena: Xabier Amuriza  
© edizio honena: Euskal Herriko Trikitixa Elkarte  
© musikarena: Rufino Arrola

2002ko Azaroa.

Diseinua: M. Bengoetxea  
Kordinatzailea: Agurtzane Aizpuru  
ISBN:84-932905-0-5  
Lege gordailua:SS-1258/02

**Euskal Herriko Trikitixa Elkarte**

Allemendi 1  
20800 Zarautz  
Gipuzkoa  
Tel: 943832828  
Email: [webmaster@trikitixaelkartea.org](mailto:webmaster@trikitixaelkartea.org)  
Web: [www.trikitixa.org](http://www.trikitixa.org)

Xabier Amuriza

RUFINO ARROLA  
(1909-1996)

# VULKANOREN ATZAMARRAK



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea

## BURDINA IBILTARIA

—Jesarri trankil, guk kantau bitartean.

—*Zutunik bere trankil gagoz gu.*

—Bardin dan kasuan, jesarrita hobeto egongo zarie.

—*Gero altzaten bere beharra egoten da.*

Elorrioko plazan, trikitiaren ondoren kantetako, bertsolari-ek oholtzara igon genduaneko berbak dira honeek, Rufino Arrolagaz gero koplari egingo neban aldi lehenengo eta bakarrean. Bera eta Txetxu Urrutia goizeko hamarretatik josten ibilita egozan, herribarruan zehar, eta arrastiko ordu biak baziran, oholtzatik bideko bategaz jatsi ziranean, kalejiran jarraitzeko.

—Zuk, honezkero, urte batzuk izango dozuz, Rufino.

—*Larogeta lau eginak eta esperantzea beste hainbestekoa.*

—Askotxo ez da izango hori?

—*Esperantzea merke dago.*

—Hainbeste urtegaz eta hainbeste ordutan, soinuak ez zaitu nekatzen?

—*Honek beronek eroaten dau. Hau izten dodanean, orduantxe jesarriko naz betiko.*

Bizitza normalean, bere mahonezko praka, arkondara koadrodun, gerriko baltz eta txapel hutsik bakoz jazten zan errementari baserritarra, plazan milrriazko praka, gerriko baltz, arkondara zuri, ohiko txapel eta bere zigarro ia innatoa ezpan erztean behera eginean ebala agertuko zan. Haren begi urdin-urdin, ia transparenteen begirada apur bat albokaran eta bizitasun agorgatxaren atzean, inozentzia baino zaharragoa dan malezia sometan zan, ondo begitu ezkeru. Ezin neban sinestu, 84 urteren ganean, halako martxea ibili eitekeanik. Nonoz, arrastiko hirurak eta hainbatean, etxera alde egin nebanean, Rufino zutunik eta joten geratu zan. Handik urteetara, Txetxu Urrutia pandero joleak, ha ibilerea zelan amaitu zan itaundu deusadanean, dino:

—*Ez zan behingoan amaitu. Katxarro jatetxera joan ginan bazkaltzera eta han baegoan emakume rubia bat, oso sinpatikea bera, eta bazkal ostean Rufino nork atara handik? Kariziak eta ondo-esanak egiten eutsazan eta, azkenean, batzordekoek etorri behar izan eben, mogitzeko esanaz, arrastian bere jo behar genduan eta.*

Arrastian beste pare bat ordutik gora jotene egin beharko ebela kalkulau ezkeru, gizonak zortzi orduko ekitaldia burutu

eban tente, soinua besoetan eta larogetazak urte lepoan. Rufinoren aurpegikeran mailua eta zintzela bistan baegozan, ez dot uste adinaren tximurkeregaitik bakarrik zanik. Eta atzamarrak! Eskumako erpurua soinu hegalaren azpira ezkutetan zala, beste laurak ez eitekean pentsau burdinazko gantxoak ez ziranik, bo-toietan gora eta behera hain bizkor mogitzen ikusi ezean. Konparazino honek baten bateri robotaren irudia balekartso, hau burdinearen azkenenengo fase teknologikoa dan bitartean, Rufinogan oraindino lantzen hasi barri egoan burdina gordina zan. Baina egia da, batzutan, begietara begitu behar jakola, burdinearen arima ibiltari bategaz gengozala konturatzeko. Orduan ez neban pentsauko, egunen batean, Vulkanoren (suaren eta burdinearen jainkoaren) atzamar hareen sekretuak eta ibilerak kontetako aukerarik izango genduanik.





Ezkerretik eskumara, Eusebio Rueda, Txetxu Urrutia eta Rufino Arrola, Alegiko jaietan, 1993an. (Jabi Nabarro argazkia).

## FIGURA BARRI BAT

Rufino Arrolak errementaritzea itzi ebanean, gitxik uste-ko eban gazte batentzat be nekez eustekoa zan martxeari helduko eutsanik. Berrogeta hamazortzi urtegaz hasi zan, ingude ganeko mailukadak sutegian itzita, beste kutxatxo alegreari irrintziak ataraten. Hasi umetan hasi zan, baita, 14-15 urtegaz, erromeri plazak beragandu be. Handik mende erdira, ohapean gordeta egondako soinuari, edo soinuaren gomuteari, hain gorputz nekatu batek barriro heltzea pentsetako, grina demoninoren batek txingarrean egon behar eban nonon. Denporea atseginez emon alde, antxinako zaletasunera bueltau gura izatea arrazoi bistakoegia litzateke, Rufinoren izakera burdinazkoa edo urgulu makurgatxa espliketako. Txetxu Urrutiak pasadizo harri-garri hau kontau deusku:

—*Behin, andreak esan ei eutsan: "Zergaitik ez zoaz hain auzotara, apur bat asaskaten?"*. Auzo haretan jaiak ziran eta, Rufino plazara heldu zanean, soinulari bat joten egoan. Baten batek esan ei eban berak Rufinok soinua jota dantzan egin gura

eukeala, antxina lez. Gizon ha, gaztetan, Rufino mutikoaren soinu-  
nua dantzan egin zan, antza, eta haxe kapritxoa sartuko ja-  
kon. Hori entzun eban soinu-lariak erronka jaurti ei eban: **“Soi-  
nulari hobarik plazan badago, urten daijala”**. Rufinok, hori en-  
tzunda, etxera alde egin eban, inori murtik esan barik. Andreak  
itaundu ei eutsan: **“Zer pasaten jatzu, gizon?”** — **“Ezer bere ez!”**  
— **“Ezer bere ez eta horren arin etxera?”** — **“Kantsata nengoa”**.  
Bihamon goizean, diru zorroa hartu eta hor abiatzen da moto-  
rrean, andreari ezer esan barik, nahiz eta etxe bueltan topaten  
dauen seme bateri jakinarazo deusan: **“Esan amari Donostira  
joan nazala eta dirua eroan dodala eta egoteko trankil”**. Dirua-  
gaz, Donostiraino eta motorrean, beste arriskurik ez balego lez.  
Egunaren akaberan, Larrinaga-Guerrini izeneko soinu barria le-  
poan ekarrela itzuli ei zan, berba gitxiko baina gailen, **“oraintxe  
ikusiko jok Bizkaiak Arrola nor dan”** pentsauaz.

—Istorio zorrotza emoten jok, baina lartxo ez dok izango?

—Nik berari entzuna dakit, besterik ezer bere ez. Rufino  
urgulu handikoa zan eta, hantxe min hartu ez baleu, ha ez zan,  
beharbada, eukan adinean, plazetara bueltako. Ez, behintzat,  
halango garragaz.

Pentsetakoa da Rufinok zelako irrintziak eragingo eutsa-  
zan soinu barriari. Urtebetetik gora, erdi isilean ziharduala, hara  
non Urdulizen leihaketa bat iragarten daben. Ustez ondo prepa-  
ranta, ez eban birritan pentsau eta joan eta bigarren gelditu

zan. 1970 inguruan gabilz, frankismoaren errai-erraietan oraindino, erantzunaren olatua gorantz etorrela eta euskal nortasunaren aldeko edozerk indarra eukanean. Folklorean motibo sakonagoak ikusten ziran arren, halako erakustaldiai kutsu politiko esleitzea gatxa zan ezkerero, dantza eta musika jaialdiek gora egin eben. Giro haretan, trikitilarien estimazinerik ezin falta, leihaketak eta antzekoak nahinon zirala. Denpora batera, Berangoko Santa Anan beste sariketa bat iragarri eben. Hara aurkezteko panderojole barik geratu zan Rufinok laster topau eban soluzinoa eta ez edozelakoa. Txetxu Urrutiak, Rufinori berari entzundako moduan, kontetan deusku:




Txetxu Urrutia, Sollubeko Kanon erretegia. Mahaian bere emazte Jaione eta atzean jatetxeko etxekoandrea, Ana Mari.

—Rufino Arrola ez zan gorengoa baino bajuago ibiltekoa. Semeak kotxean eroanik, badoa Arteako Mauriziagana eta dinto: **“Berangon jota sariketea dago eta ez daukat panderojolerik. Neugaz etorri behar dozu”**. Artean bere jaietan egozan, irailgo Andra Marietan, eta Mauriziak dino: **“Herriko jaiak bertan behera itzita, zelan joango naz, ba?”** —**“Andrakatik honaino alperrik etorri naz, orduan?”**. Mauriziaren senarrak, —berau bere soinularia—, erruki harturik edo gizalege konponberek agindurik, andreaki esan eutsan: **“Zoaz eta egizu egin beharrekoa, hemen goa egingo dogu eta”**. Arrasti erdian, han presenta zan bikotea Berangon, nor baino norrago, eta irabazi egin eben.

Maurizia koplari bildurgarria zan. Haren kantakereak eta ahots tinbreak bere sasoiko rocklariak be harriturik eukazan. Esan eitekean Rufino zati baterako kontsolauta geldituko zala, Berangokoa irabazitakoan, baina dino: **“Maurizia! Gaubean beste sariketa bat dago Laukiz Txikerrean eta haraxe joan behar dogu”** —**“Egun bakarrean danak egitea ez da derrigorra, Rufino. Hurrengoan be Jaungoikoak emongo deusku argia”** —**“Baina Laukiz Txikerrekorik hurrengoan ez da izango!”**. Mauriziak, bakearren edo gizalegearren beronek be, amore emongo eban, esanaz: **“Ea kontsoletan garan, sariakaz ez bada, bideakaz”**. Eta irabazi egin eben. Rufinoren kolkoan bizarrik baegoan, ederto harrotzeko motiboak sartu ziran. Bere alaba Maria Jesusek go-goan dauka zelan behin, —beharbada egun horixe izango zan—,

euren aitak, Mauriziagaz, egun berean hiru sariketa irabazi ziotuan. Bata ziur dago Mungia ondoko Birlen izan zana, beste biak (Gorliz, Leioako Ondiz, Laukiz Txikerra, Berangoko Santa Ana...) non izan ziran guztiz seguru ez dago baina. Eta guztiz gogoan dauka, berak hamalau bat urte eukazala, zer harro etorri jaken aita etxera, bere hiru kopakaz, Mauriziari zelan esan eutsan kontauaz: **"Eroan sariok 'Karakoleri', 'Karakolilloaren' partez"**. Mauriziaren senarraren ezizen artistikoa "Karakol" zanez, bere bu-rua elegantziaz txikitu eban, andrakaz galaia izaten be baekian Vulkanoren semeak. Soinura bueltakera hau ikusita, ez dago gatx sinesten sutegian baztartuta gelditu zalako burdineak ha-ren gorputzean haragiturik jarraitzea erabagi ebala.

Tomas "Sitse" eta  
Kepa Arrizabalaga,  
aita- semeak.



Rufino Arrola eta  
Kepa Arrizabalaga  
Leioan, 1980an.

## FIGURA GARAILE BAT

Kepa Arrizabalagak hamabosten bat urte egingo zituan Rufino Arrólaren panderojole, 1977 ingurutik 1992ra arte. Rufinoren bikote banangatx hauxe dogu, beraz, haren ibileren testigurik hurrekoena.

—Berba gitxitan, Rufino zelako gizona zala esango heunke?

—*Pertsona ona, jenio berezia...*

—“Bereziak” zer esan gura jok?

—*Eroaten jakin beharrekoa. Atzerarik ezertan bere ez eukana. Plazan harrotu egiten zan. Arrankada gogorrekoa zan.*

—Harrotu zelan, zertan?

—*Plazan hazi egiten zan. Soinuagaz batera, paparra bere zabaldu egiten jakon. Harek, jo ez ezik, botoiak gasta egiten eban. Sutegiko esmerila kendu barik ibiltzen zan soinu jotzen bere. Halako sua eukan ze, atzamar txikerra apurtuta eukana ahaztu egiten jakon eta “ai, kabendios!” hots egiten eban, min hartueran. Hatxa baino gogorra zan. Erre, barriz, bota ahala.*



—Eta zurruta?

—Zurruta bere gustaten jakon, bai. Inoiz apur bat lokatu bere egiten zan, baina, normalean, ondo eusten eutsan. Ha albo-alboka ikusteko, asko sakatu behar jakon.

Botoiak "gastau". Horren esplikazioa, "Vulkanoren atzamarak" izenburuaren arrazoiak ganera, bere joteko era primitibo zana. Eskumako erpurua soinu hegalarren azpiko aldera sartzen eban, beroneri tenazan helduaz. Halan, beste atzamarrek, perpendikularrean barik, tiran lez, apur bat azterka lez zapaltzen zituen botoiak.

—Berezko indar beharbada inkontzienteaz ganera, berak figura kontzientzia eukala uste dok?

—Dударik bere ez! Ziur nago pentsaten ebana Rufinoren modukorik munduan bere ez egoala. Harek ez eukan bildurrik inorako. Beti egoan aurrerako prest eta pozik. Horrek gauza bat eukan okerra, ezetzik esaten ez ekiala, beti egoan plazarako ilusinoagaz eta. Roberto Etxebarriagaz hasi nintzanean, Rufinok baeukazan larogeta bi urte eta esan neutsan: **"Zuk, Rufino, behar dozunean esan eta joango gara. Ni beti izango nozu prest, zeuk gura dozunean laguntzeko. Niretzat zeu izango zara lehenengoa beti"**. Eta halantxe ibili nintzan, halako leku jakinetan beragaz joten.

—Roberto Etxebarriak eta biok txapelketara aurkeztea pentsau zenduenean, apur bat zeloso parau zalako entzutea jaukaat.

—*Apur bat baleiteke. Rufino izakera gogorreko gizona zan alde guztietatik. Ha urgulu handikoa zan, eh! Baina nigaz beti ondo konpondu zan, oso ondo. Neu bere, berak gura ebanean, beti laguntzeko prest egoten nintzan eta aita-sume moduan konpontzen ginan.*

Rufino eta Kepa 1977an hasi baziran, 1979ko trikitilari txapelketan bikote famadu bihurtu ziran, Euskal Herri osoan. Donostiko Anoetako finalean, frontoikada guztia gora-goraka ipini eben. Alde batetik, ikustekoa zan hainbeste urteko gizonaren indarra, apur bat gorputza okerkera, zelan soinua besoek emon ahala zabaltzen eta izten eban eta zelako irrintzia ataraten eutsan eta, bestetik, Keparen kantakera braboa, arnasa batekoa, bitarteetako animazino etenbakoan: **"Aupa, Rufino! Emon! Ieeeuf! Atara esteak horrerri! Aaaii-aujiji! Hori dok eta!"**. Ikuskizun harrigarria izan zan, estilo baten antxinatasuna, odola, bildurrik eza eta etorkizunaren desafioa batera agertzen zirana. Laugarren egin eben, baina eurak izan ziran eguneko errebelazinoa.

—*Handik ez dakit zenbat denporara, barriro Azkoitiko frontoian ginan lehenengo lau bikoteak, erakustaldi moduan. Soinulariak Laja, Epelde, Martin eta Rufino. Han bere jentea gora-goraka imini genduan. Orduan zaletasun itzela egoan. Handik laster izango zan, Ordizian, Rufino Arrolagaz eta Luis Bilbaogaz, biakaz joan nintzanekoa. Orduantxe ginan **"Bizkaiko***

**trikitolariak**” diskoa atara barri eta dantzariak bere eroateko esan euskuen. Nik neure anaia eta arrebea eta beste Urdulizko batzuk eroan nebazan eta Rufino eta biok bigarren lotu ginan, frontoia ganezka eta jente guztia dantzan. Orain ez dago halako konturik.

“**Bizkaiko trikitolariak**” diskoak Bizkaiko trikiti zaharraren ezaugarri batzuk nabarmentzeko balio dau. Hamabost pieza datoz bertan, sei jota edo “astiroko”, sei porrusalda edo “arineko” eta hiru biribilketa edo martxa. “Astiroko” eta “arineko” honeek Kepari berari entzundako berbak dira, beste bi gehiago, erritmo horreek izentetako erabili izan diran askoren artean. Diskoan ez dago fandangorik ez arin-arinik. Biribilketak ez beste pieza guztiak kantauak izaten ziran, koplarienzat deskantsurik barik. Rufinok txapelketa baten inguruan jakin eban fandangoa zer zan, Lajak “**ez kantau eta eginda daukazu**” esan ei eutsanean.

—Guk orduan dana kantata egiten genduan —dino Kepak— eta Rufinori fandangoak-eta ez jakozan askorik gustaten. Txapelketetan, zelan edo halan moldau behar izan genduan, baina gero, geure plazetan, geure ohitureari jaraitzen geuntsan. Trikitilari gazteren bat fandango joten entzuten baeban, “**joik Bizkaikoa!**”, kargu hartuko eutsan Rufinok latz eta zorrotz.

—Soinuak soinu, Rufino bera zelako gizon modua zoan?

—Oh! Gizon argia eta inteligentzia handikoa zan ha, edonori asagotik igarten eutsana. Gure ibileretan jente klase asko

*inguratzen da eta batzuk nahikoa gogaikarriak bere bai. Rufinok etorkeran bertan antza emoten eutsan halakoari eta esaten eban: "Hi trankil. Hori Laster botako joat ingurutik".*

—Eta bota giten eban?



Rufino  
Arrola eta  
Kepa  
Arrizabalaga  
ezkontza  
batean,  
1982an.

—*Bota-bota bere ez, baina enberazutik kendu bai. Inork aurre emon, edo jaramonik egiten ez baeban, laster egingo eutsan soinua burutik behera sartzeko plantea. Behar bazan, antolatzaileakaz bere enfrentako zan. Bazan orduan ohitura bat, dantza sariketak jo behar ziranean, trikitalariak atzez imintekoa, dantzariak ikusi barik jotea garbiagoa izango zalakoan edo. Rufinok holakorik ez eban onartzen, beroturik inoala: "Neu atzez para? Ni hori baino legalagoa naz gero!"*

—Berbalduna zoan? Kontularia?

—*Beti historiak kontaten. Pikaroa eta pikante samarra zan, tentatzailea. Zaharrak, danak bere antzekoak ziran horretan. Rufino, gure aita, Luis Bilbao eta haien sasoikoak juntaten ziranean, beste mundu bat sortzen zan. Eurak euretara hasten ziranean, adurretan egoten nintzan, entzuten eta begira.*

Usterik gitxienean, esango eban : **"Konejuak bere arrautzaginan hasi jatazak, oiloen pentsua emonda. Osterantzean, itaundu Kepari"** —**"Hori egia dok, Kepa?"** —itauntzen eutsien honeri eta honek be zeozer esan behar eta: **"Beno, nik arrautzak ikusi nebazan konejutokian. Orain, ez dakit oiloek ala konejuak eginda egozan"**. Artean andrazkorik bazan, batez be, danak barreka txizak egiten ipinten ei zituan. Gaztetan, —oso gerra aurreko kontuak dira, beraz—, txirrindulari ibili ei zan, harik eta, jauskera bat bide zala, aproba gogor samarrak alborra itzi behar izan arte. Kepak Rufinori sarri entzun ei eutsan,

bizikletan joiala, neskai eperdian ikutu eta aurrera bizkor egi-  
tea gustetan jakola eta, behin, neskato batek atzetik segidu eta  
harrapau egin ei eban. **"Eta neu korredorea!"**, hots egiten eban  
Rufino zaharrak.

—Gipuzkoara urteten hasi zinienean, zer igarten jakoa?  
Ilusinoa? Bildur apurren bat?

—*Harek ilusinoa edonorako eukan eta bildurrik inorako  
bere ez. Gizon balientea zan, horretan eta edozertan. Atzera  
egiterik ez eban sekula pentsaten, bere dobleko gizonari papa-  
rretik heldu behar bajakon bere.*

Plazan figurea nor zan ez egoan dudarik, nahiz eta mar-  
txea Kepak zuzendu, ondo esanean, **"orain hauxe eta hauxe egin  
behar dogu"** eta halan. Rufino bere izartasunaz harro eta segu-  
ru ibiliko zan, jentearen aldetik be, halantxe hartua izateko ka-  
rismea eukan eta.

—Kotxean, sarritan goizaldeetan, zer autu ekarten zen-  
duen bidean?

—*Geure bizimodua eta horrelakoak. Neskak, andrak... ho-  
rretarikoak asko. "Ikusi dok ha neskazaharra zelan preparata  
etorri dan?", eta holan. Ez zan bila joatekoa, baina ondoan su-  
bertaten jakonagaz, pikaroa eta tentatzailea zan.*

—Gaixotu zanean, zelan ikusi heuan? Berak zelan ikusten  
joan bere burua?

—Ondoko danak bera baino txartoago egozala pentsaten eban. "Hauxe katarro puñeteru hau apur bat bigunduko balitz" eta holakoak esaten zituan. Haren burua atzera plazara noiz bueltako egoan.



Rufino  
Arrola eta  
Kepa  
Arrizabala-  
ga,  
Plentziako  
Kai Ederren,  
1989an.  
(Goikoetxea  
argazkia)

## KOPLARIRIK ONENETARIKOA

Kepa Arrizabalaga, Rufino Arrolaren laguntzaile eta informatzaile ez ezik, koplari eta panderojole moduan, figura itzela izan da eta izaten jarraitzen dau. Rufinogaz hasi aurretik, bere aitagaz eta Luis Bilbaogaz ibilbide luzea eginda egoan. Koplari-rik "onenetarikoa" ipini dot atalburu, "onena" esateak inor alpe-rrik mindu ez daian, baina asko dira, neu barru, gizonezko ko-plarien artean, bat hautatzekotan, Kepa izentauko leukienak. Andrazkoetan, Mauriziaren aurretik ezingo neuke inor ipini.

Kepa 1944ko zezeilaren 14an jaio zan, Plentziako Isuzkitza auzoko Sitse baserrian, Oka errekearen ondoan, Butroiko gazte-lutik beherantza. Bere umezaroa etxe inguruan joango zan, erre-kea, baserria eta mendia bizileku zituala, hamalau urtegaz beha-rreran hasi arte, lehenengo harotz ikasten eta gero trokelista, Ur-dulizko Mecanica-n. Bilbon arrebea eukan, taberna eta guzti, eta hantxe egiten eban lo, mostradorean be lagunduaz.

*—Bilbon ito egiten nintzan —dino—. Inoiz, arrebeak la-gunduta, zinera bere pozik joango nintzan, baina ni etxerako*



*gogoagaz egoten nintzan beti. —Kopla sen aparteko hori nondik jatorkon itaundutakoan, dino: —Pandero joten etxean bertan hasi nintzan, txarri-afarietan eta halan, panderorik geunkanean. Osterantzean, lapiko tapea edo botilea bere bardin joten genduan. Gurean danok ginan kantariak, anaiak, arrebak, eta ama bera bere panderojolea zan. Soinuari bere oratu eta ahalegin batzuk egin nebazan, baina nekatu egiten nintzan.*

—Hirea kantatea izango zoan, auzoko neskatok entzuteko moduan.

—Zozo harroen moduan? Ez daukat horretaz aparteko gomutarik. Nik danerik kantaten neban, erromerietakoak eta koxuten neban guztia. Gurean ez zan kantateko okasinorik falta, danok ginan zaleak eta.

Kepa ez zan alperrik Tomasen semea. Tomas Sitse lez eza gutzen zan hau soinuari entzutetsua izan zan. Hogeta bost urtegaz, Kepa aitari laguntzen hasiko zan, inon aukerarik ikusten ebenean. Koplak eta kanta zaharrak aitari-eta ikasten eutsazan eta ba ei eukien osaba bat be, erdi bertsolaria, kanta asko ekiana

—Rufino Arrolari irratiko alkarrizketa batean entzun naiotsan: **“Kepari bere neuk irakatsi neutsan pandero joten”**.

—Zati bat egia da. Rufinok berak ez eban panderorik jotzen, baina inoiz esaten eustan: **“Hemen hauxe egin zeinke. Hemen, barriz, holan”**. Dana dala, nire metodo nagusia entzun, ikusi eta gero neure kontura aprobatea izan da beti. Pasaten

*dana nik ez dodala beste erritmo batzutan sartu gura izan, neurre estiloari eutsi baino.*

—Eta heure estilo hori zer edo zelakoa dok?

—*Ez dakit zelan esplika, baina nik soinulari indartsuak euki dodaz beti, geure aita, Rufino, Luis Bilbao eta halangoak, eta gure estiloa gogorra, egurra emotekoa zan, bizitasuna eta indarra ezartekoa.*

—Apur bat eboluzionau be egingo hintzan, baina.

—*Bai, baina estilo baten barruan. Aitagaz hasi nintzanean, zakar samar joten neban, erritmoa eroateko behar zantxo eta gitxi gehiago, gero asko hobetu nintzan baina. Lehen-go soinuetatik oraingoetara bere, badago aldea. Ez da indar kontua bakarrik. Beste zarata klase bat ataraten eben.*

Kepak, lehenago aitagaz eta Luis Bilbaogaz, gero Rufinogaz, orain Robertogaz, era guztietako plazak egin ditu: erromeriak, ezkontzak, afari-bazkariak, trikitilari bikote tradizional moduan... Taldean be bai, Jon Enbeita eta Ireneo Ajuriagaz egin eben **"Paperetik plaza-ra"** izeneko emonaldian. Gehien zeinetan gozetan dauen itaundurik, berari danerik gustetan ei jako, baita kantetea be. Hori bai, abestirik gehienak euskeraz kantetan ei ditue. Estutu ezkeru, beharbada, trikitilari bikote tradizional modura egiten dabon ibilerea dauela maiteen autortzen dau, kalejirak, plazako saio ez hain hain luzeak, gero tabernarik taberna eta halan. Erosoen, barriz, neuk bestelakoa entzuteko ustean itaundu arren, taldeko ekitaldian aurkitzen ei da.

—*Akonpainamentu apur bat eroategaz eginda dago. Ba-xuak eta gitarrea eta beste danak dabiltezz erritmoa eroaten eta panderoak ez dauka besteakaz batera joatea besterik. Baka-rrean, norberak egin behar dau dana, jo, erritmoa eroan, bizita-suna emon eta dana.*

Keparen kantakereak alde biak konbinetan ditu. Batetik, aire basatia eta primitiboa dauka eta, bestetik, kantetan ohituta dagoanaren jasa eta jagitasuna. Bere tinbre biziak, altuak, latz puntu deigarri bategaz eta ezarten deutzan garboagaz, eskegita zaroazala emoten dau. Lehenengoz entzuten dauenari, esplora-tu barik egon dan lurralde braboren batetik harako agerpena be-gitantzen jako. Ez dago dudarik bere aitaren eta Rufino Arrola-ren arrakastearen zati handi bat Kepari jagokola, jenteak, adi-nagaitik, meritua hareei traspasetako joera bihozkorra hartzen baeban be. 1979an, Rufino eta biak Donostian laugarren geratu ziraneko eztanda hareri ezer kendu barik, beharbada hunkiga-riena Tomas Sitsek eta biek, Donostiko Trinitade plazan, biga-rren egin ebenekoa izango zan, bere aitagaz zalako, batetik, eta, bestetik, bera sasoirik indartsuenean egoteaz ganera, berotasu-nik handieneko boladan izan zalako, 1974an.

—*Bigarren lotu ginala entzutean, ha izan zan saltoa! La-jak eta Iturbidek irabazi eben, guztira dozena bat bikote ginala. Ikaragarria izan zan. Plazea bete-beterik egoan eta jentea gora-goraka imini genduan. Giputzek ez eben askorik kantaten eta,*

*beharbada, horrexegaitik izango zan, ze, nik bizi-bizi kantakeran, jente guztia zutunik txaloka altzaten zan. Hurrengo urtean ez genduan bigarren egin, baina koplarririk onenaren saria emon eusten. Gipuzkoan trikitiak eukan maileagaz eta fameagaz, Bizkaitik otzan-otzan joan eta Donostitik bigarrena ekartea badakizu zer dan?*

—Hire kantakera brabo horretan, batzutan, heure tesitu-rearen goiko muga-mugan ibilten hazala emoten jeustak. Tonu bat edo bi beherago, ez heunke erosoago eta luziduago kantauko?

—*Baina niri holantxe gusta, goien-goienetik! Biziago eta indartsuago urtetan deustala esango neuke.*

1944an jaio zan Kepa oraindino indartsu dago, baina, urteak bajoakozala eta, ibilerea apur bat zelan mehaztu pentsetan hasita dago. Roberto Etxebarriak **"hi oindokarren sasoi onean hago"** esaten ei deutso, baina sarritan ibilera gogorak dirala autortzen dau. Plazak norberak gura dauen modura banantzerik balego, baina, gehienez, alkarren ganean etorten ei dira, aste-buruetan pilotuaz.

—*Eguerdian, tragotxo batzuk egin eta biztu egiten zara, baina logurea eta kantsazinoa hantxe etorten dira. Ez da lehen-goia. Urteak bakarrean ez dira joaten. Bizitasuna bere eurakaz eroaten dabe.*

—Iztea pentsetan hagoala ulertu behar joat?

—*Hori ezergaitik bere ez. Plazak mehaztu bakarrik.*

—Mehazteak nagitzea eta sortzea ez jok ekarriko?

—*Bai zera! Askoz bere freskoago holan.*

Kepak, bere etxe inguruan daukan solotxoaz ganera, ez dau zaletasunik falta. Perretxikotan, errekea, lapatan, hatxera... ernegau barik ibilteko gogoia eta gaitasuna badaukala dino. Berez, trankila emon arren, larri samarra be ba ei da eta sinesten deusat, ze osterantzean ez dago haren bizitasunez kantetarik. Baina martxea berak eroatea gustetan jako, ez arrapaladan.

—*Ni, beharrera bere, ordubete lehenago joango nintzan eta egunkaria goitik beheraino irakurriko neban. Eta inork ez nengiala molesta gero!*

Bere lan-bizitza luzean, lantegi asko pasau ondoren, azken aldi luzea Getxoko Areetako Iberdrolan egin eban, oraindino sasoiko erretirau zalarik. Urte on askotan ikusiko ahal dogu koplari suhar hau plazetan, eta munduan, berak "nahikoa!" esan arte. Neuk, trikiti jeneroan, kapritxo bat eskatzerik baneuka, disko berean eta, ahal dala, kanta beretan, Maurizia eta Kepa batera eta txandaka kantetan entzutea eskertuko neuke. Grabazioak badagoz eta, gaurko aurrerapenakaz, beharbada, ez litzateke hain opari ezinezkoa.

## ADINAREN GANETIK

Rufino Arrolaren azkenengo ibileren lagun eta testigu nagusia Txetxu Urrutia Landaluze dogu, Laukizko Matzerrotan jaioa, 1946ko zezeilaren 15ean. Gizon kontularia, edegia, animosoa, irribarrez jantzia, pandero jotea —eta musikea, oro har— munduko atseginik handienetarikoa dauena. Ruforen izatea eta izakerea ezagutzeko, (besteek “Rufino” dinoen lekuan, Txetxuk “Rufo” esaten dau beti), iturririk onena izan daiteke, hainbeste gorabehera gogoan eukiteaz ganera, kontetan gozau egiten dauela emoten dau eta. Rufoganako miresmena eta karinoa alde guztietatik igarten jako, iturri emonkorrari jagokonez, alde delikau samarrak kontetan badakiala. Berari eskerrak, batez be, jakin dot Rufo nortasun bildurgarriko gizona zala; bere lanbide nagusi bietan, errementaritzan zein soinularitzan, urgulu profesional totalekoa.

Txetxu bera be pertsonaia bitxia da eta horren argibidea kainabera batek emongo deusku. Laukizen, Butroiko gaztelutik hur, badago *Erreskondo* izeneko jatetxe bat, Txetxuren koinata Rosalik daroana. Auzo berean bizi dan Txetxuk jatetxe hori bere

etxetzat dauka, bere emazte Jaionek be, Rosaliren ahiztea izanaz ganera, bertan behar egiten dauelako. Behin, tabernara etorri ei jaken Berangoko morroi bat eta, bere tragotxoa egindakotan, erratz kirten bat eskatu ei eban. **"Erratz kirtena zertarako?"** —**"Zuek ekarri!"**. Emon eutsien, ba, eta han hasi ei zan kainaberea lantzen, azkenean, demoninoak hartuta lez joten hasteko.

—**"Holakorik! Hauxe gauza polita!"**, *pentisa neban* —dino Txetxuk— *eta gizon miragarriari esan neutsan: "Horixe neuri emon behar deustak!"*. *Tabernan baegoan beste gizon bat, Andres Bilbao izenekoa, hortxe aurrean bizi zana, eta honek hots egin eban: "Ez, ez! Hau neuretzat egin jok eta neuk jarokat"* —**"Eroaik, ba!"**, *esan neutsan penaz eta berak eroan eban. Baina gero, tresna barriagaz zelan ebilen itauntzean, askorik ez zala ahalegintzen ikusten neban, inoala: "Ez pentisa. Andrea bere zarataka ibiltzen jatak etxean, zoratuta ete nagoan"*. *Eta nik esaten neutsan: "Orduan, ekarristak neuri, neuk aprobateko"*. *Halako batean, han dakarst, papertxo batean batuta, kainabera zorionekoa. Etxera eroan, trikiti zinta bat martxan imini eta emon. Orduak eta orduak egiten nebazan haxe ikasten. Ustez ikasi nebanean, neure buruari esan neutsan: "Orain, honegaz, urten egin behar dok nonora"*.

Ganeko egun batean, Urdulizko jaiak ziran eta Txetxuk baekian trikitilariak han izango zirana eta bera be hurreratu zan plazara, gure Rufino, Kepa eta Eusebito jo eta ke ebilzan ingu-

rura. Danek "Eusebito" esaten deutsien hau Eusebio Rueda dogu, Sopelako panderojolea. Txetxu entzuten eta kalkuluak ataraten ebilen, ea noiz eta zelan sartuko ete zan koadrilan. Eguerdian ez zan animau, baina arrastian han doa barriro, ha-reek non ibiliko ziran baekian lekura.

—*Sartzen naz artean, hasten naz neure kainaberea joten eta aibadios! "Zer dok hori?" —itauntzen eusten danek, harriturik. Rufori gusta egin jakon eta dinost: "Neugaz hasi behar dok. Ez jagok dirurik, eh?" —"Nik ez dot dirurik behar" —erantzun neutsan eta, harrezkero, hor hasi ginan batera eta bestera, kai-*



Txetxu Urrutia kainaberea joten eta Eugenio Arrola, Gorlizan, 1982an.



*nabera horregaz. Rufori ez jakon gustaten nik, kainabera haregaz, beste soinulari bateri lagundu neion. Kainaberea joten, beste bategaz ikusten baninduen, ai, amigo! Behin, Eusebitok dinost: "Hik erratz kirtena bai, baina panderorik joten ez heinke ikasi". "Ikasi ez?" —hots eginda jaso neban erronkea.*

Txetxuri be, lehenago Rufinoren antzera, amore propioaren barreneraino sartu jakon puntadea eta, inon bazan, berak pandero joten ikasiko ebalaz zin egin eban bere kautan. Etxean ba ei zan pandero zahar bat, ganbara baztarreko nonon, Bilboko "botxero" batek amamari ekarria, eta Txetxuk laster kenduko eutsazan hautsak hareri be, trikitia martxan ipinita.

—*Ni, erritmoak hartzen, txistutik bere ikasita nengoan, tresna hau nahikoa ondo menperatzen neban eta. Eusebitok hasan eustanetik hiru bat hilabetera, Laukizko jaiak ziran eta ni harakoxe preparaten nenbilen. Halako une jakin batean, Rufori esan neutsan: "Rufo! Jo soinua, ea nik panderoa zelan jotendodan". Hasi ginan eta elegante. Eusebito bere majo isildu zan orduan. Aurrerantzean, pandero eta kainabera, biakaz jarraitu neban aurrera, Rufogaz eta Kepagaz neu bere nahastean.*

Neure gomutan, behin bakarrik ikusi dodalakoa daukat Txetxu kainabera jotenean, baina ez jat behingoan ahaztuko. Laukizko herrian zan eta, nireak lez, besteen begiak be nobedade demoninozko hataraxe adi-adi egozan danak. Klakada zorrotza

eta bizia ataraten eban, inpernuko subea eskuetan aztoratu balitxako lez. Tresnea berrogeta hamar bat zentimetroko kainabereare besterik ez da, erratz kirtenaren zati bat izan daitekeena. Nik eskuetan euki dodanak kainaberearen ohiko lau uztai edo morapilo daukaz, tresnea hamahiru-hamalauna zentrimetroko lau zatitan banantzen dabela. Azken aurreko uztaiari buelta guztian esku bategaz heldurik, besteagaz atzerantz geratzen dan atala astintzen da, behar dan erritmoa ezarriaz eta heldulekuaren aurre aldean hotsa atareaz. Hots hau atarateko, kainaberea, puntatik heldulekuraino, luzetara ebagita dago, erdi bi bardinetan. Erdi biok ezingo leukie zaratarik atara, erdi batari, heldulekuko uztaitik hurrengora, koska luze bat egingo ez balitxako, platano baten antzeko hutsunea geraturik. Hutsune horreri, alboetara, brida antzeko hari luze bi izten jakoz eta erdi batak euroi eskerrak bibretan dau puntan, beste erdi zurrunaren ganera joaz, heldulekuaren atzetik jatorkozan kolpeen eraginez. Arrolagana bueltaurik, dino:

—*Rufogaz kontuz ibili behar zan. Hareri ez jakon gustaten inork errukirik hartu eion eta burua lehenago apurtuko eban, "kantsata nago" edo "gehiago ezin dot" autortu baino. Eta, ganera, ezinik egon be ez egoan haren belaunaldikoentzat. Danak bere urgulu handikoak zirala uste dot, batez bere, Rufo eta Tomas Sitse. Honeen artean, lehia itzela egoan. Bata tabernan joten egoala, bestea sartzen bazan, behingoan sortzen zan*

temea, nor indartsuago. Rufo tabernan sartzen zanean, aparta egin behar izaten zan.

—Zuen artean, nork eroaten joan deien eta plazen ardu-rea?

—Hori Rufok beti. Bera arduratzen zan danaz, abisuak hartzeaz, nora eta zelan erabagiteaz eta danaz, baita diruaz bere. Horretan ez egoan sartzerik. Nik emoten eustana hartu eta etxera. Hori bai, ordaintzen zigurra zan eta ez egoan kezkatu beharrik. Dirua maite eban, baina, bestearen txakur txikirik gorde baino lehenago, eskua erreko eban.

—Zelako ekitaldi klaseak egin eitekezan larogetazak urteko gizon bategaz?

—Danerik. Ezkontzak, erromeriak, egun osoko ekitaldiak.

—Eta beti tente?

—Eta zigarroa musturretik kendu barik. Edaten bere ez zan atzean lotzekoa. Gero neuk eroaten neban etxeraino eta, batzutan, sartzen bere lagundu egin behar izaten neutsan, berak ez eban halakorik onartzen baina. Dana dala, ha albo-kargeagaz ikusteko, asko behar zan, eh! Nik ez dakit zerezko gizona zan. Burdinazkoa esaten dabe, baina nik uste dot burdinea makala zala, haren aldean. Behin, Gipuzkoako Alegian, jesarlekuak imini euskuezan, ondo beharrean. **"Honeek nik ez dodaz behar!"** —erremuskadea egin eban eta, erretirau ez balebez, ostikoz jaurtiko ebazan. Eta orduak egin genduzan joten, berbena antzera.

—Zigarroa musturretik kendu barik dinok, baina erre eta

jo batera, ez dok erreza izango.

—*Nik ez dakit zelan konpontzen zan, baina harek biak batera egiten ebazan. Batzutan, hautsa, txingar eta guzti, soinuaren eta paparraren bitartera sartzen jakon eta han ibiliko zan as-trapalan, soinua aparta guran, "kabuendios!" marmarka. Holakoetan, erritmoa erdi galduta ibiliko zan, baina, piezea amaitu arte, joteari izterik ez egoanez, akaburako, arkondarea zulotuta eta paparra bere erreta agertuko ziran. Haren arkondarak beti zulotuta ibiltzen ziran. "Joten gagozan bitartean, ez eizu zigarrorik isiotu —esaten neutsan—, papar guztia erre behar dozu eta". Badakizu behin zer erantzun eustan? "Bizi guztia burua sutegian sartuta egin joat eta orain zigarro bategaitik ikaratuko ete nok, ba?"*

Altsatsuko harextietan egiten zan EGIN egunera be han agertu ziran, behin, Rufino eta Txetxu, goizean goiz, baztarrak alegretan hasteko sasoian. Milaka lagun batzen zan han, gehienak gazteak, eta Rufino, bere larogeta lau-bost urtegaz, inork ez genduan jesarrita ikusi. Gazteak "aupa Rufinoka" batzen jakozanean, bizitu eta harrotu egingo zan, harexti mendetsu hareetan, aparizino mitologiko bat lakoa. **"Kantsau ez zara egiten, Rufino?"** —itaundu neutsan pasadako batean eta bai arin erantzun be: **"Kantsateko bildur danak ez dau etxetik urten behar"**. Arrastian, bueltan, Urkiolan Trikiti Eguna zan eta, jakina, Rufinorik ez egoan bertan geratu barik aurrera eroaterik. Han ziran

Junkera, Zabaleta eta abar eta, Rufino sartu zanean, danak orro-  
 aka hasiko jakozan. Eta gizona orduantxe etxetik urten baleu  
 baizen bizi eta ganoso. **“Nonoz heldu ginan etxera orduan bere  
 —dino Txetxuk—. Harena martxea zan gero!”**

Roberto Etxebarriak haren jokerea “raziala” zala dino. Burdinea joten dan moduan, soinua beti topera erabilten ei eban. Iurretan urtero egin ohi zan trikitilari egunean, Rufinok bere burua numero unotzat ikusten ebala dinoe han ibilitakoek. Trikitilari artean, jente artean, ebilen leku guztietan, bera agertzen ei zan beti nagusi. Urteek aurrera egin ahala, ostera, Junkera, Zabaleta, Roberto Etxebarria, bere lobak eurak eta abar gorantz etozan eta horrek pentsau eragin eikion bera beherantz ete joian, eta horixe ez ei jakon askorik gustetan. Kasu honetan, halan be, *“adinak ez dau parkatzen”* esakerea apliketarik ez dago. Rufino ez eben urteek menperatu, “karramarro” madari-  
 katuak baino.

—Eta beste kontu hori zelan zoan, andrazkorik inguruan bazan, soinua halan eta halan zabaltzen ebalakoa?

—*Zelebrea izaten zan. Rufo, bere serioan eta bere arte-  
 zean, pikaroa zan eta neskak eta andrak tentaten goza egiten eban. Gorputza oker-oker eginda, soinua disimuluan andren go-  
 netaraino zabalduko eban eta inoiz, barrena ertzen batean kati-  
 gata, gonea altza bere bai. Haiek ijuiak sortzen ziranak, hain egiten eban grazioso eta. “Aupa, Rufino!” diarka hurreratzen ja-*

kon neskatoa bazan, soinua paparreraino zabalduko eutsan. Nik uste dot apur bat saltseroa izateak bere baeukala zerikusia haren arrakastan.

—Hik uste dok Rufino Arrolak baeukala halako figura-usterik?

—*Totala! Rufok kontzientzia osoa eukan bera figura bakarra zala. Rufo gora eta Rufo behera, Bizkaia guztian Rufo behar zan. Eta giputzen artean bere, ez pentsa bapere kikiltzen zanik. Behin, Zumarragara deitu euskuen eta, halango gizona halan ikusita, danak beragaz para ziran behingoan. Zelan ez eban, ba, bakarra zala sinestuko? Urduliztar batzuk domekaro Andrakara etorten ziran txikiteoan, Ruforen tabernara, eta han derrigorra zan soinua jotea. Koadrila haretakoek koplak bat atara eutsien erderaz:*

**En el cielo manda Dios  
y en la tierra(i) el dinero  
y en al Alto de(i) Andrakas  
Rufino Arrola el herrero.**

*Kopla hau entzuneran, Rufo harro-harro paraten zan, burua apur bat okerkerera, irribarrea paparreraino eriola. Neu bere, hasikeran, haraxe joaten nintzan praktikaten. Behin, beste soinulari gazte bat bere han egoan eta esan neutsan: "Joik orain fandango bat, azken aldion entzuten diran horreetariko bat". Jotzen dau eta Ruforik gehiago ikusi bere ez inguruan. Hurrengo*

egunean, nik tenta egin neban, ea fandago hareri zer eritxon, eta erantzun eban: **"Horreek fandangook! Horreek ez dozak Bizkaiko trikitia. Holakoak joten ikasita, ez jagok zereginik"**.

Trikitian hain zarratua eta bera hain arteza izanik, eleiza kontuan, ostera, ez ei zan bape zalea eta gitxiago abadezalea. Muzin hori nondik ete etorkon itaundurik, Txetxuk dino haren umezaroan oraindino bizi-bizirik egoan *"inpernuko hauspo"* kontua izan eitekeala, batez be, abade batek esan ei eutsanetik: **"Hoba hori soinuori nabo haziz beteko baheu"**. Mutikotan entzundako horrek Rufinori min handia emon eutsan, antza, handik hirurogetamar urtera be, halako erreminez kontetako.

—Azkeneko urteetan, apur bat mantsotuko z oan, horraitino.

—*Mantsotu? Harek hori berbeori zer zan ez ekian. Gu danok bere espezial samarrak gara eta Rufo pentsa. Nik uste dot gehien txoka jakona ni Roberto Etxebarriagaz hastera izan zala, ez ni galtzeagaitik, artean bere ez nenbilen beragaz-eta, baina Roberto bere ingurutik kentzea asko sentidu eban, plazak kenduko geuntsazalakoan edo. Behin, San Blasetan Bilbora joan ginan, bera eta Kepa alde batetik eta Roberto eta ni bes-tetik, eta ez jakon bapere gusta. Nigaitik nahikoa ernegata ebilen boladan, Mungian zinean jo behar zan eta Roberto eta neu bere deituta gengozan. Rufinoren panderojoleak egun haretan ezin izan eban etorri eta neuk lagundu behar izan neutsan. Jaialdia amaitu eta gero, etxera neuk eroango nebala agindu*

*neutsan eta ez eban ezetzik esan. Bidean, kotxean, negarrari emon eutsan.*

—Negarrari zergaitik?

—*Ba, artean nigaitik gauzak esanda egoala, halan neuk etxera eroan beharra txoka egingo jakon edo sentimentua iku-tuko eutsan.*

—Eta benetan egiten joan negar?

—*Bene-benetan, negar anpuluia eriola. "Zeuk gura dozu-nean, ni hemen nago", esaten neutsan nik, eta egoteko trankil. Gizona halan ikusita, neuk bere ez neban askorik falta, negarrez*




Ezkerretik eskumara, Kepa, Rufino eta Eusebio, ETBko "Funtzioa" saioan, 1989an.



*hasteko. Oso sentiberea zan, bai gogorrerako, bai bigunerako. Hilten egoala bere, haren buruan itzelezko planak egozan, plazara non eta zelan bueltako. Beharbada, zeozer iruntsita eukiko eban, baina, kanpokoen aurrean, behintzat, ez eban barrukorik sekula demostrako.*

—Azken aldera, ez heuntsan esaten halako ibilerarik ez jakola komeni edo antzeko zeozer?

—*Ezta pentsa bere, ze ez dakizu atzetik zer kontestazino etorriko jatzun. Ruforen urgulua "zaharrago eta braboago" zan. Urgulu totala. Nik ezin neutsan ezetzik esan, desgustu handiagoa hartuko eban eta. "Karramarroak" aurea hartu ez baleutso, soinua lepoan ebala hilgo zan.*



## MUNDURIK MUNDU

Txetxu Urrutia mundu guztian ibilia da, bere beharlekutik. 1946ko zezeilaren 15ean jaio zan, Laukizko Matzerrota izeneko etxean, 10 nebarrebaren artean zaharrena. Erreskondoko auzo eskolan, hamalau urtera arte ibilita eta gero, Mungian ajustadore egin zan. Hogeta sei urtegaz ezkondu zan, Erreskondora, bertoko alaba Jaionegaz, eta lau seme-alaba daukiez, mutil bi eta neska bi. Jaionek, bere ahizta Rosalirenean, auzoaren izen bereko *Erreskondo* jatetxean behar egiten dau eta Txetxu be errezen hantxe aurkituko dozue. Butroiko gaztelutik kilometro bat ingurura, eta Butroiko kurtzea deritxonetik Laukizerantz, harrikada batera dagoan jatetxe hau fama handikoa da inguruetan. Mungiako EGT-an (lehenago *Mecánica Olalde*) hasi zan beharrean eta hantxe jarraitzen dau. Beste zenbait gauzaren artean, erreduktoreak egiten ditue, barkuetan, eolikoetan, zementu-, azukre-, paper-fabrika, laminazino, zentral hidrauliko eta holakoetan behar diranak. Hamazortzi urtegaz hasi zan beharlekutik kanpora bidaiak egiten, mekanikari.

—*Abioian ibilteko ilusino itzela neukan eta bildurrik inoiz bere ez dot izan. Portugaleteko zubia azpian ikustea zoragarria izan zan niretzat. Gure lantokian behargin abilak asko dagoz, baina kanpoetara joateko gogorik gitxik izaten dabe. Ni, ostera, deseaten.*

Gatikako *Intxurtxu* dantza taldean, bost-sei urte egin zituanean, hamazortzigaz hasita, euskal dantzak ikasten, eta, txistuari begira, pentsetan ei eban: **"Nik zergaitik ez joat hori joko?"**. Mendizabal izeneko barakaldoar irakasleari ordubete lehenago etorteko eskaturik, hiru-lau lagunek solfeoa eta txistua be ikasi eben. Gero, etxean garrotea emonaz, bere kontura osotu ei eban ikastea, eukan afizino handiari eskerrak.

—*Erromerietan hara-hona hasi nintzan eta, behin, Saturrarango kanpin batean kokatu ginan. Gaubean Lekeitioko San Antolinetara joan ginan eta hor hasten naz kalean tibiri-tibiri, neure lagunen artean, orduan kanta subertsiboak ziran Eusko Gudariak, Agur Zuberoa, Gora ta gora Euskadi eta holakoak jotzen. Atzean jentea batzen hasi jakun, geroago eta gehiago, eta, denpora laburrean, egundoko burrundadea eta berotasuna sortu zan. Geu bere harrotu ginan eta, afanaren afanez edo, tanbolinari narua apurtu jakon. Bateri bururatu jakon: **"Hemen orain, tanbolina konpontzeko, dirua batu behar da"**. Eta tanbolina bera imini eban, jenteari hara dirua bota eian, eta bai bota bere! Han ataratako diruagaz, kanpineko laskian ibili beharrean, astebete zer guran pasa genduan, jatetxerik jatetxe. Jenteari zoraturata lez emoten*

*eban. Nik orduan hogeta lau bat urte neukazan eta ikaratuta nengoan, halako gauzarik gerta eitekeanik bere. Jenteak berak bere topera laguntzen euskun kantuan eta kaleak aidean altzateko moduko korua sortzen zan. Beste behin bere, Bermeoko Santa Eufemietan, halantxe ibili ginan, jentetzea atzetik eta kantuan genduala, baina orduan, dirua barik, goardia zibilak etorri ziran, txistularia eroatekotan. Jenteak erdian hartu ninduan, jagoteko. Itzela arma zan, baina, akabuan, ezin izan ninduen eroan.*

1970. urte inguruan gabilz, Euskal Herriak bizi izan dauen hamarkadarik beroenatarikoan. Txetxuk lurbira osoa korridu dau bere beharlekutik. Hegoamerika guztia, Argentina, Brasil, Colombia, Mexiko, Salvador, Kuba, Jamaika... eta bako-txean hainbat uri. Argentinan, esaterako, Cordoba, Rosario, Tucuman, Comodoro, Patagonia. Argentina eta Kuba asko gustetan jakoz. Brasil oso arriskutsua ei da. Río de Janeiron edo Sao Paolon, ezer dizdiz egiten ikusi ezkeru, behingoan kentzen ei deusue. Jamaika be oso arrikutsua dala dino. Kuban, ostera, itzel. Hegoamerikan, beste jente klase bat ei dago, edonogaz errez lagun egitekoa.

—*Kuban, behin, hamabost bat eguneko beharra neukan. Egunak joan ahala, martxarik ez neban ikusten eta direktoreari esan neutsan: "Hemen bizkortu egin behar da, eh!". Baina, ni lekura agertzen nintzanean, beharginak ezkuta egiten ziran. Hamabost egunen buruan, beharrik amaitu barik itzuli nintzan*

etxera. Handik astebetara, hara non hartzen dodan hango lantokiko direktorearen beraren gutun bat, **"Señor Urrutia, persona non grata"** izentaten ninduala. **"Nire Kubara bidaiok amaitu dozak oraintxe"**, pentsa neban. Handik urtebetara, barriri bere Kubarako deia. Hauxe dok neurea! Joan nintzan eta "¿qué?" eta "bueno"; txoferrak hoteletik ekarri eta hotelera eroan; atzera eta aurrera; "hoy esto" direktoreak eta "vale" nik, nahikoa, eta atzera hotelera. Hemen, neure lantokian eta etxean, **"haz er egiten jagok Kuban?"** esaten ei eben, baina hango martxea holakoxea da. Hamabost eguneko beharra egiten hile bi egin nebazan eta trankil etxera.

Argentina asko gustau jakon eta Patagoniak inpresino handia egin ei eutsan, klimearen gogorragaitik, batez be. Une batean, egundoko eguzkia, argi-argia, eta handik ordu erdira, haizeak urten eta mukiak be gogortu behar, eta hori udan. Miamin, ostera, inferioridade kokoa sartzen ei jakon: transatlantikoak, hotel itzelak, egundoko mantsinoak, hotelerako joan-etorriak yate itzelean. Pentsetan ei eban: **"Zer egiten jok hemen Laukizko baserritar soil honek?"**. Hegoafrikan, behin, barku bat konpondu eta, arobetan, itsasoan aurrera joiazan. **"Hau eginda jagok"** —erabagi eben, joanaldi baten ondoren. **"Orduan, orain etxera bueltateko moduan nago"** —Txetxuk eta kapitainak: **"Guk ezin zaitugu eroan. Beste barku bat lokalizaten dogunean, harek eroango zaitu portura"**. Nonnoiz, handik hamabost egune-

ra, barku bat agertu zan, porturantz joiana, baina oso itsaso txarra egoala. Halako txintxorro bat ipini eutsien, barkutik barkura pasetako, eta Txetxuk hots egin eban: **"Ni hor pasa? Ezta pentsa bere!"**. Hurrengo barkua beste hamabost egunera agertuko zan. Bitartean, lantokikoak eta etxeakoak larri Euskal Herrian. Domeka batean, irratiz partiduak entzuten egozala, armadoreak hots egin eban: **"Mekanikaria hor dago? Parau daitela bere enpresegaz hartu-emon urgentean"**. Bihamon goizean deitu eban, **"hemen nago holantxe eta holantxe"** esanaz. Bera be apur bat larritzen hasita egoan, baina barkutik deitzeko modurik egoanik pentsau be ez ei eban egin. Afrikan be arazo handiak ei dira, gabetan batez be, taxian eta lagun ezagunagaz ibili ezik. Libian, ostera, kartera bat lurrean ikusten badozu, hantxe gertatuko ei da txakurren batek heltzen ez badeutso, lapurretea eskua mozteraino zigortuta dago eta. Europa (Holanda, Italia, Luxenburgo, Belgika, Polonia, Alemania, Frantzia...) ez jako askorik gustau, danean bardintsua eta gogaikarri samarra dalako.

—*Behin, banabil Kubako lantegi batean eta hara non sartzten dan komandantea bera, Fidel Castro, gizon zati itzela. Lantegiko beharginai inotsen: "¡Escuchen! Observen bien a este hombre y aprendan, para luego hacer ustedes mismos todo lo que él hace". Han jainkotzat daukie Fidel. Gero, hotelean, telebisinoa iminten dot eta bere diskurtsoa. Neu bere lau orduan gustora entzuten egon nintzan. Danari ekiten eutsan: politikeari, munduko*

*gorabeherai, orduai, amerikarrai, hanka egindako kubanoai. Honeekaitik hots egiten eban, atzamar luzeagaz lurra markaten: "iGusano, a tu mierda!". Halangorik inoiz ez dot entzun. Eta, nire moduan, hoteleko beste danak bere adi-adi egozan entzuten.*

—Erretiretan hazanean, munduari agur egin beharko deutsak.

—Orduan panderora bueltatea gustako litxakit.

—Gaur bikoteak osotzen diran moduan, soinularia aurkitzen ez dok errez izango.

—Agertuko da baten bat. Besterik ezean, lantzean bategaz. Zamudioko azkenengo trikitilari egunean bere, goizetik ilundera, atzamar puntak urrutu arte ekin neutsan. Gustaten danak bizia luzatzeko bere balio izango dau, ezta?



Ezkerretik eskumara, Txetxu kainabereagaz, Eugenio Arrola, Roberto Etxeberria eta Kepa, Sopelan, 1982an.

## HAMAHIRU UMEREN AITA

Txetxu Urrutiaren auzoko gizon batek, Andrakara urtean behin jaietara joatetik bueltan, esaten ei eban: **"Arrolaren tabernan, urtero sein barria sehaskan"**. Guztira, hamahiru izan arren, hamaikak urten eben aurrera, bi, bikotxak eurok, jaio eta egun gitxira hil ziran eta. Hamaikako horretatik, gaur bederatziz bizi dira. Eurotariko hirugaz egoteko subertea izan neban, Andrakan bertan, euren aitaren barri etxekoen ahotik entzuteko. Hirurok Maria Jesus, Tere eta Jose Luis izan ziran, azken hau, etxekoentzat eta geuretzat be, hemendik aurrera, "Txetxelo" izango dana. Inguru haretan sein edo ume txikiari "txetxe" esaten jako. Jose Luis, sein txikerra zala, oso lotia ei zan eta, baten batek **"txetxe non dago?"** itauntzean, **"txetxe lo"** erantzuten ei zan eta, hortik, "Txetxelo" ezizen karinosa geratu jakon betiko. Bizkaian, ume txikiari "txotxo" esaten deusagun leku askotan, ez leuke hain ezizen karinosaok urtengo. Alkarrizketeaz ganera, argazkiak eta materialak batu orduan, Maria Jesusen senar Albertok eta Txetxeloren emazte Rosik be parte handia izan eben.



Rufinoren etxeokandik sarrien entzun neban berbea "arteza" izango zan: **"Gure aita oso arteza zan"**. **"Danean zan arteza"**. **"Batzutan, lar arteza bere bai"**. Eta bere bizimodu "gogorrean", bigarren berbarik ugariena, bai etxekoen, bai beste lekuko guztien ahoan, hauxe izango zan, hain zuzen: **"Gure aita gogorra zan"**. **"Rufino harrigarri gogorra zan"**.

Rufino Arrola Ibergarai 1909ko maiatzaren 29an jaio zan, gero Lemoizko zentrala egingo eben lurreko Atauneta izeneko baserrian, errekearen Mungiaiko aldean. Bost urte eukazala, Andraka ganeko Goikomendi izeneko baserrira aldatu ziran. Eskolara ez eban joan-etorri askorik egin, baina letra handia eta polita ei eukan. Rufinoren umezaroa ardi jagoten joan zan. Buenos Airesera alde egitean, osaba batek, Bizkaiko soinulari txapeldun izan zanak, soinua hemen itzi eban eta harexegaz jotaten ei zan ardi zain. Lehen txikia eta orain soinu joten distraidu, ardiak sarri ibiliko ziran galduta. Aitak hasarre egingo eutsan, baina ez gogorregi, berari be soinua gustetan ei jakon eta. 13 urtegaz, Zamudioko Geldoak auzoan, lehenengoz jo ondoren, hurrengo urtean, Lezamako plazea beragandu eban, Matxain panderojoleagaz, eguneko hogerlekoa irabaziaz. Derion eta Zamudion be joten eban, baita ondoren Butroiko plazan be. Hamalau urteko mutiko batentzat ez zan edozelako ibilerea Lemoiztik Lezamaraino bizikletan, soinua lepoan eroiala, eta, Matxain hori dantzaria be bazanez, bueltan, Derion-eta, batak jo eta besteak dantzan egin, igual beste hainbeste ataraten ei

eben. Egitekoak eginda, aldatsa luze egiten ei jakon Artebakarran eta soinua astun bizkarrean, baina hogەرlekoak aurpegi polita eukan orduan.

Sasoi haretantsu, aitak errementaritzea ikasten bialdu eban, Erandioko Tomas Ruiz de Velascoren tailer handira. Egunez behar eginda, iluntzean Erandio Goikoko "Piñu" edo "Piñuko"-ra erretiretan zan, orain unibertsidadea dagoan ganeko auzoan. Hemen aitaren lehengusu batek soinua irakasten eutsan. Urte bi egin zituan ofizioa ikasten, egunez behar, gabaz soinua ikasi, zapatu iluntzean etxera eta astelehen goizean beharrera, joan-etorri guztiak bizikletan eginaz. Errementaritzan ez ezik,



Rufino Arrola, bere emazte Emeteria Makuaga eta hamaika seme-alabakaz.

harotzerian be artistea zala dinoe seme-alabek. Hamazortzi urtegaz, errementari hasi zanean, soinu joteari itzi egin behar izan utsan, hortik ezin ebala jornalik atara eta. Kontuok txari-afarrietan, Gabonetan, neguko gabetan eta holan kontetan ei zituan. Seme-alabek dinoe:

—*Bera ez zan oheratzen, danak oheratu arte. Baina, geu bere gazteak eta neba-arreba asko izanik, batzutan, bera oheratu zala ziurtatakoan, hanka egiten genduan isilean.*

—Berak igarri barik?

—*Igarriko eban, baina ez euskun kontra gogorrik egiten. Hori bai, bihamon goizean, ordu erdi lehenago joko euskun dienea eta orduan bere isil-isilik jagi behar izaten zan.*

—Soinua total itzita eukan?

—*Soinua han egoten zan bere ohapean. Etxean ez genduan askorik entzuten. Inoiz, jairen batean, Gabon gaubeko afa-lostean, piezatzoren bat edo beste eta akabo. Holakoetan, belura arte egoteko libertadea bageunkan, baina bera goiz joaten zan ohera eta gero jagi bere goiz. Erratzagaz azpitik tak-tak josten euskun. "Banoa" guk eta berak "baia noz?"*

Errementaritzea ikasitakoan, Rufinok, Andrakako kurtzean bertan, terreno bat erosi eta hantxe egin eban etxe barria eta errementaldegia, baita tabernea be gero. Astiro-astiro, terreno barriak erosten joan zan, soloak eta basoak, eta halantxe hornidu eban etxalde dezentea.

—*Bera ez zan ganaduzalea —dinoe seme-alabek—. Soloa eta gorrea ez jakozan lar gustaten. Harena sutegia eta errementaritzea zan. Egunean hamabi ordutik gora egingo eban beharrean, gurdiak, asto karroak eta halango erremintak egiten. Ganadua perraten bere behar handia egiten eban.*

—Bakarrik egiteko, behar tropea ez da hori guztiori?

—*Laguntasuna sarri behar izaten zan han, ganadua altzateko, hauspoari eragiteko eta abar. Amak bere asko laguntzen eutsan, uztaiak matxakaten eta.*

—Entzutea daukat, seme-alaba bakotxari deitzeko, sistema bitxia eta bakotxarena eukala.

—*Ingude ganeko mailukadak ziran. Bakotxak izentata geunkan geure mailukada kopurua. "Tan-tan-tan! Hori heurea dok". Edo "heurea don", neskentzat bere bardin eukan eta. Halango deira, arin presenta behar zan.*

Rufino hogeta sei urtegaz ezkondu zan, Morgatik Andrakara etorritako familia bateko Emeteria Makuagagaz, honek hamazazpi urte eukazala. Zelan hasi ziran eta holakorik ez ei eban kontetan, baina xehetasun batzuk argitu ziran.

—*Gure amari beste bat ibili jakon atzetik, diruduna, baina aitagaz ezkondu beharra izan eban.*

—Beharra? Nork derrigortuta?


—*Euren beharrak! Olgetan ibiliko ziran eta. Amak notizia emon eutsanean, aitak "a lo hecho pecho" esanaz, aurrera egin*

*eban duda barik. Holako kasuan, mutilak neskea izteari oso txarto erexten eutsan.*

—*Eta gero sein piloa iladan. Ama ondo katigu geratuko zan, hain gazterik.*

—*Aitak berak bere ez eban asko urteten. Lantzean behin, Jatabeko probetara eta joaten zan, posturatxoak eta gustaten jakozan eta. Osterantzean, ez zan bapere gastatzailea. Kanpoan ibilten zanean, zeozer beti ekarten eban etxera. Kartetan ez eban eguno jokutzen. Bere bizio bakarra erretea zan, hori hil arte. Sasoi batean, zotzagaz bere hasi zan, ea tirea arintzen jakon, baina ezin izan eban burutu.*

Ezkondu aurretik, soldadutzea izango zan eta, Rufinoren kasuan, ez edozelakoa. Hogeta bat urtegaz joan zan kintoetan, 1930ean. Orduko soldadutza luzetik lizentziau eta laster, 1936ko gerreak urten ebanean, Rufino abertzaleen aldetik al-



Lemoizko zentral honexen azpian jaio zan Rufino, Atauneta baserrian, Mungiako partean.

tzauko zan eta gero, nazionalen eskuetan, beste sei urte egin beharko zituan. Guztiz librau zanerako, ezkondata egoan eta ume bi baeukazan etxean. Denporarik gehiena Burgosen egin eban eta ez ei zan hain txarto be moldau, etxerako baimena nahikoa errez lortzen ebal.

—Gure aitaren urteko oporraldia San Pedroetako lau egunak izaten ziran. Urtero joaten zan Burgosko Soto Palaciosera, hango gerrako lagunak eta lekuak bisitaten. Bisita hareri huts egitea gerea bigarrenez galtzea langoa izango zan harentzat. Joan-etorria motorrean egiten eban eta, bueltan, buzkantzak eta halakoak ekartzen ebazan beti. Urte batean, Zaragozara bere joan zan beste lagun bategaz motorrean, han bere gerrako lagunak ikustera.

—Zuen aita ez ei zan ia egundo eleizara joaten. Gerrako desengainuen ondorio izan daiteke?

—Zergaitik ez dakigu garbi, baina ez zan joaten, ezta Aste Santuko egun handietan bere. Hiletaren batera joango zan, noiz edo noiz, ez gitxi kostata. Auzo honetan gizon asko ziran, eleizara joaten ez ziranak.

—Harritzekoa ez da hori, gerroste bildurgarrian, eleizeak hainbeste indar eukan sasoi haretarako?

—Guri esaten euskun: **“Zoaze mezatara. Ostean ez dago ereiterik”**. Abade gogorra eta zantar samarra egoan orduan Lemoizen eta, eleizara joan ezik, nonor jaiegunean soloan beharrean ibili zala jakiten baeban, hurrengo domekan pulpitutik

*kondenaten eban. Gure aitari, beharbada, beragaitik ez eutsan hainbesteko lebarik, baina bere etxeoak herriaren aurrean seinalateak min handia emoten eutsan.*

—Abadezale be ezingo eban izan, orduan.

—*Lantzean behin, abadea bera etorten zan tabernara. Abadetxe barria egiten, geu bere beharrea ibili ginan, doan. Gure aitag behar handia egin eban. Behin, gurdia atara ezin eta maldezinoka atara ei eban, abadeak entzuteko moduan. Gero esaten eban: "Ha bere konturatu dok maldezinoak zelango indarra dekon".*

—Bera eleizara ez joateko motiborik ez eutsuen sekula agertu?

—*"Han zer galdurik ez dago", esaten eban.*

—Txetxu Urrutiak dino ze, mutikotan, abaderen batek **"hori soinuori nabo haziz beteko baheu"** esateak min handia emon eutsala.

—*Guk ez geuntsan holakorik entzun. Bazan auzoan bat, altua eta argala, beti mezatara joaten zana eta komuninoa hartzen ebana. Gure aitag esaten eban: "Pekaturik ez badekozu, eleizara zetako?"*

Eskulangile artoso eta begi zorrotzeko, baserrietako erre-minta zaharrak erosten zituan, **"honek ez deutsu ezetako babilio"** esanaz, eta gero berak garbi-garbi egin, pintau eta saldu egiten zituan. Zentral nuklearreko presapean, baserri bi ego-

zan eta hango burdiak eta erremintak Rufinok atara ei zituan. **"Holango beharretan artistea zan"** —dinoe seme-alabek. Imanol Arrolak be, mutikotan Andrakara joaten zanetik, Rufinoren alde hori ondo gogoan dauka, dinonean: **"Buf! Ha horretan kitano garbia zan. Nonondik gurditzar haundi bat jirako eban, lau txakur txikitan, eta gero berak barri-barri imini eta bariaren prezioan salduko eban. Eta holan, harrapatzen ebazan erreminta eta altzari guztiak. Garbi ez eban esaten, baina inoiz, harrrokeria moduan, aitzen emoten eban holango tratuetatik diru gehiago ataraten ebala, beharretik bertatik baino"**. Baina harek beste arte bat euki ezkutuan! Azkenean, berrogeta hamazortzi urtegaz heldu eutsan barrero, eta zelan heldu be, heriotzak eskuetatik kendu arte, gehiago ez eban itziko eta. Seme-alabek eurek be ez dakie garbi zelan bueltatu zan martxa haretara.

—*Beharbada, dirutxoa atarateko modua ikusi ebalako izango zan. Soinuagaz diru piloa ekarten eban etxera eta errementaritzan baino gitxiago kostata.*

—Halako adinean, aita plazarik plaza urtetzen ikusteak ez eutsuen erreparo apur bat emoten? Bildurra edo lotsea edo penea edo...

—*Gure aita, hirurogei urtegaz, burdinea baizen gogor egoan oindokarren. Haren arrakastea ikusita, geu bere poztu eta harrotu egiten ginan.*



DEIA egunkariko alkarrizketa batean, Rufinok berak emoten deusku data zehatza, noiz hasi zan: **"1969ko irailaren 8an, Urdulizko leihaketa batera aurkeztu nintzan"**. 1909ko maiatzaren 29an jaio zan ezkerreko, 60 urtean ondo bueltauta egoan, ardean alargundua. Geroago, Maria Jesus alaba gazteena geratu zan aitagaz Andraikan, berak 18 urte eta Rufinok 67 eukazala. Hiru bat urte aitagaz, biak bietara eginik, hogeta bategaz ezkonduko zan eta, aurrerantzean, aita-alabak eta suhin barria, Alberto Ruiz, biziko ziran Andraikan. Rufinoren azken hogeitau urteetan, berak 18 urte eta Rufinok 67 eukazala. Hiru bat urte aitagaz, biak bietara eginik, hogeta bategaz ezkonduko zan eta, aurrerantzean, aita-alabak eta suhin barria, Alberto Ruiz, biziko ziran Andraikan. Rufinoren azken hogeitau urteetan, berak 18 urte eta Rufinok 67 eukazala. Hiru bat urte aitagaz, biak bietara eginik, hogeta bategaz ezkonduko zan eta, aurrerantzean, aita-alabak eta suhin barria, Alberto Ruiz, biziko ziran Andraikan. Rufinoren azken hogeitau urteetan, berak 18 urte eta Rufinok 67 eukazala. Hiru bat urte aitagaz, biak bietara eginik, hogeta bategaz ezkonduko zan eta, aurrerantzean, aita-alabak eta suhin barria, Alberto Ruiz, biziko ziran Andraikan.

—*Han ibiltzen zan beti, bere soinua preparaten, botoi bata askatu, bestea ondo imini. Egunean zenbat ikutu egiten eutsan soinuari! Esaten neutsan: "Ni hemen eta zu hortik zehar, daukazun edadeagaz?"*. Holakoai ez eutsen erantzuten.

—Egun osoa kanpotik eginda, nekatuta ez zan etorten, ibilera horreetan tragotxoak be egin behar izaten dira eta?

—*Inoiz etorten zan, bai, apur bat alboka bere eta lagundu egin behar izaten jakon, baina ez jakon gustaten zer ordutan etorten zan nik jakiterik. "Oindokarren begira zagoz?"* —errita egiten eustan. *Etxean isilean sartzan ahalegintzen zan, baina pentsa, azkenean, larogetazak urtegaz, kargu hartu beharra neukan. Eskilaretan gora, disimuluan atzetik jarraitzen neutsan eta ez jakon bapere ondo paraten. "Zu nora zatoz hemen gora?"* —hasarratzen zan. *"Hau zertan jabik nire atzetik?"* —pentsako eban.

—Orduko baserri askotakoak lez, zuen etxeko eskilarak be ez ziran erosoegiak izango.

—*Eskilara zarratuak eta erripeak ziran eta alboan, trabeseko haga batean, kodainak-eta egoten ziran eskegita. Nik, badaezpada, kodainak handik kendu egin nebazan eta hori bere ez jakon bapere gusta.*

Etxekoen esanetik, Rufino apenas zan edalea, nahiz eta anisa eta edari gozoak maite zituan. Etxeko tabernan, lagunakaz nahastetan zanean, anisa pintinka-pitinka edatea gustetan ei jakon, bakotxean kopa bat zikinduaz. **"Iminizu dana batera"** —agintzen eutsan alabeak, kopak garbitzen gogaituta, bueltan berak erantzuteko: **"Eta gero igual dana batera edan!"**.



Rufinoren baserri-taberna-errementeria, berak egina, aurrez bere alaba Tere agiri dala.

—Azkenerantz, ez zeuntsien esaten **"nahikoa dozu, aita"** edo holako zeozer?

—**Bai, zera! Holakorik entzuterik ez jakon gustaten. "Ezin dotenean, neu lotuko naz"** —*esaten eban.*

—Eta azkenean lotu beharra izan eban.

—*Azken-azkenean, eh! Zezeil batean hil zan eta aurreko zemendian gaixotu. Artean, udea normal-normal pasa eban. Pentsa, larogeta sei urtegaz, motorrean Gernikaraino joan zan, soinua konpontzen. Holakoetan, motorra etxetik asago arrankata joango zan eta, bueltan bere, asago amatata sartuko zan etxean, motorra eskuan ekarrela, inork igarri ez eian ahaleginduz, baina ez, batean ez bazan bestean, gu kon-turatu barik.*

Bigarren umezaroarena ez da, beharbada, eta zoritxarrez, danean egia gertauko, baina bai da egia, antza, Rufino lako gizon burdinazkoetan be, umetako tranpa bardintsuak errepiketa-ko maleziara (inozentiara) bueltetan garala.

—Ospitalean bisitau ebenek dinoe ez ebalá hilterik pentsetan, barriro soinuagaz plazara bueltetea baino.

—*Kanpokoai, beharbada, holan berba egingo eutsen, baina etxekooi esaten euskun: "Zuek badakizue nik zer dekoten". Guk esaten geuntsan: "Ez, aita. Medikuak zeuri esan deutsu zer dekozun, urdaileko zera, baina hemendik sartzen ez badozu"... Ez eban ia ezer jaten eta. "Ba, nik, holan izatekotan, ez dot bizi*

**gura**". *Beti esaten eban, bera jausten zanean, ez ebala gura bere atzetik inor ibili eiten.*

—Azkeneko gaba neuk egin neban beragaz —dino Txetxelok—. **"Zer, aita?"** —*esan neutsan, ailega nintzanean, eta berak:* **"Ios! Hemen mejorarik ez jagok"** —**"Egongo da. Oindokarren, denpora laburra da, botikek euren beharra egin daien"** —*esaten neutsan nik, zeozer esatearren.* **"Egik lo"** *esaten eustan eta nik:* **"Nik egingo dot lo, aita. Ni ondo nago"**. *Hori azken gaubean. Aurretik bere, errezelo handia hartuta egoan. Ez dot uste harek handik bizirik urteteko esperantzarik eukanik.*

—Azken gaba izateko, burua argi eukala dirudi.

—*Gure aitaren burua, azkeneko unera arte, argi-argi egon zan.*

Hil baino hilabete eskas aurrerago, urtarrilaren 17an, San Anton egunean, omenaldia egin eutsien Mungian, berak beti **"datorren urtean"** esanaz atzeratzen ebana, omenaldiek heriotzea erakarten dabelako susmoa eukan eta. Azkenean, onartu eban eta polito ibili ei zan, negarrari eutsi ezinik bazan be. Kepa, Roberto, Laja eta hainbat trikitilari bikote batu ziran bertan. Bazkaria eskoletan izan zan eta ez eban ezer jan. Nahikoa txarto aurkitzen ei zan. Gero, ostera, kalera urtekeran, guztiz bizturik, ez ei eban etxera joan gura, alaba Maria Jesus, ondo beharrez, hatarako prestau jakonean. **"Ah, ba, etorri gura ez badozu, ez gara joango, eh!"** —agindu eu-

tsan alabeak eta luzaro jarraitu ei eban Mungian, etxera joateko penaz.

—Beragaz ibili ziran guztiek dinoe zuen aitak bera figura handia zalako kontzientzia osoa eukala. Etxekook zer inpresino daukazue?

—*Horretan harroa zan, bai. Bera guztiz sinestuta ebilen.*

—Gipuzkoara eta joaten hasi zanean, zer eritxi ekarten eban bueltan?

—*Giputzak gogorrak, baina maltzurak zirala esaten eban. Behin Ordizian igarri neban —dino oraingoan Txetxelok— giputzek beste zer bat eukiela, pieza diferenteak joten ebezala. Antolatzeileek **"hauxe joten urten behar dozue"** agindu eutsien trikitilariak, habanerea edo, baina gure aitak ez ekian ha joten. Gero esan neutsan: **"Aita, aitu! Horreek beste gauza bat joten etorri dira, jotea ez dan beste gauza bat"**, eta berak sikuan erantzun eustan: **"Niri ez deust inork irakatsiko"**.*

—Seme-alabon artean, soinuaren edo beste tresnaren baten ikasminik ez jatzuen sortu?

—*Batzuk ikasi genduan, bai —dino Txetxelok—, baina guk teklaua ikasi genduan, eta bost atzamarrakaz. Berak, osterara, erpurua, atzamar lodia, soinu hegala azpira sartu behar izaten eban, erdi alperrik, eta horrexen enbiditan egoten zan beti, atzamar lodiagaz bere jo ahal izatea. Baina, jakina, te-*

*klauak zarata txikerragoa ataraten ebanez, gure aitak hori bere ez eban gura.*

Andrakara ikasi gurako asko etorten ei zan, artean, andragizon batzuk, Bermeotik beren-beregi, eta Rufinok, halako batean, andreari dinotso ze: **"Zure gizonagaz gasolinea alper-alperrik gastaten zabiltzez. Horrek ezin dau ikasi eta ez eizu gehiago ekarri"**. Gazteai laster esango eutsen: **"Nigana etorri bazara, neure moduan ikasi. Ostantzean joan beste bategana"**. Beste estiloakaitik **"hori ez da hemengoa"** esaten eban. Giputzakaz eta danakaz lagunzalea ei zan, baina, hango eta hemengo estilo kontuetara jo ezkeru, auzia sikuan ebagiko eban: **"Giputzek euren eta guk geurea"** —**"Horretan zarratua eta konbentzidua zan"** —autortzen dabe etxeok be.

—Zuen aita eta Tomas Sitse, plazakide ez ezik, auzoz be hurrekoak ziran.

—*Bai. Gure aita, sariketak ugaritu ziran bolada haretan, han ibiltzen zan ea Tomas Sitse badoan itaunka, "Tomas Sitse ez badoa, ni zertan joango naz, ba?" eta holakoak esanaz. Tomasek, gurera etorten zanean, soinuari heldu eta gaubeko hamabiak arte bere igual ekingo eutsan jotzen. Ha ez zan sekula kantsaten. Alegrea zan. Gure aita ez zan hainbeste ekitekoa.*

—Baina saltsea gustetan jakona, etxetik kanpora behintzat. Andrakaz eta, pikaro samarra ei zan.

—*Bazan, bai.* —dinoe danek eta Maria Jesusek jarraitzen dau: —*Ni etxean praka laburrakaz ikusterik ez jakon gustaten. Mungiatik errekaduak eginda nentorrenean, esango eustan: "Zer, seine? Egin dozuz egin beharrekoak? Orduan, erantzi ho- rreek eta jantzi gonea". Nik aurre egiten neutsan, esanaz: "Zer- gaitik ez dot praka laburrik ebaliko, neu hogeta bost urteko nes- katoa izanda?". Zelebrea zan. Etxean ez euskun praka laburrik iminten izten, baina berari bai gustaten jakozan praka bakero estuko neskatoak. Behin, Benidormera eroan eben soinu-jole eta denporea baino lehenago etorri zan, ernegata, "han narru zaha- rra besterik ez dago" esanaz.*

Amaitu daigun atal hau, Rufinoren izakerearen adierazga- rri bitxi bategaz. Trofeoak, kopak eta halakoak etxera ekarri be ez ei zituan egin gura izaten. Panderojoleari esango eutsan: "**Botaizak hor horma baztarrera**". Bere bizimodu gogorrean ze- har, dirua estimetan ikasi eban, baina "**beste honeek garbitzen beharra besterik ez jaukiek**" esanaz kondenauko zituan. Maria Jesusek esango eutsan: "**Baina, aita! Zeuri gustaten ez baiatzuz bere, etxera ekarri eizuz behintzat, besteoi gusta lekiguz eta**". Rufinok erantzungo eban: "**Faltea badeko zu, hurrengoan zeu etorri eta zeuk ekarri**". Motorretara, ostera, zaletasun handia eukan. Kepa Junkera ez eban gitxi harritu, Rufinok bere base- rrian dozenerdi motor gordeta eukazala aurkitzeak.

## ZER IKUSI, HA IKASI

Rufino Arrolak irakaskera bitxia eukan. Ikasle bi hartuko doguz, haren metodoaren adibidetzat: Roberto Etxebarria, hare-gandik ikasia era barriagorantz bideratu ebana, eta Imanol Arrola, haren estiloari ia literalki eusten deutsana. Robertok, Rufino zelakoa zan itaundurik, dino:



Rufino bere azken omenaldian, Mungian, 1996-01-17an, eskuman Kepa Arrizabalaga, Juli alabea eta loba batzuk dituala eta ezkerrean Roberto Etxebarria. Hemendik hilabete jostura hilgo zan.



—Rufinok nahikoa eta lar egiten eban gugaz. Oso berezia zan. Ni orduan umea nintzan eta teklautik ninoan Rufinogana. Mundu aparta eta misteriosoa zan ha niretzat. Tabernatik barrura sartu eta sala batera eroango ginduzan eta, han, bere soinua hartu eta **“hauxe eta hauxe egin behar dozue”** agintzen euskun. Bera aurrean paraten zan eta melodia baten hiru-lau nota astiro-astiro jotzen ebazan, guk geure soinuak bardin-bardin egin gengian. Berak zer egin, guk haxe imita behar genduan. Atzamarren kolokazinoari eta holakoai ez eutsen ardura handirik emoten.

—Hi hamabi urteko mutikoa eta bera hirurogeta hamaika urteko gizona.

—Pentsa zelako alde. Umeentzat ez eukan zerik, serioa zan, baina ez zan problemarik sortzen. Batzutan, ernega egiten eban eta apur bat kikildu egiten nintzan; orain, ostera, pentsa ten egoten naz zelako meritua eukan, berak bere azaltzen garbi ez ekiana guri irakasten.

Metodoa efikaza zala dirudi, ze Roberto haregaz urri batean hasi eta hurrengo apirilean plazetan jotzen ebilen, haren inguruan. Egia da etxean asko ahalegintzen zala, Andrankan ikasitakoa, “ikusitakoa”, gogoratzen eta segurtetan, baina, une batean, emozinoz autortzen dau:

—Lehengoan, neure orduko grabazino bat topa neban eta halako haize freskoa emoten deutsu, zelan dan-dana haren esti-

*loan joten neban entzuteak. Kopiaten hasita, guk dana kopiaten genduan.*

Rufinok beragaz batera eroaten zituan mutikoak herrietara. Umeak izan arren, orduan be kargutzen ei ziran Rufino zer estimaua zan danean. Erreberentzia lako bat sortzen ei eban heltzen zan baztar guztietan.

—Bera be jabetzen zala uste dok “nonor” bazana?

—*Hori dudarik bere ez. Gizon eretxia zan, nortasun itzelekoa. Guretzat eskola ona izan zan.*

Behin Gorlizen, neskato batek Robertori kalean itaundu eutsan: “**¿Vosotros sois los cinco bilbaínos?**”. Rufino eta Kepagaz, eurak be, uniforme eta guzti, praka milrraia, gerriko, arondara zuri eta txaleko gorriz (edo jertse manga bakoz) joaten ziranez, Roberto mutikoak baietz erantzun eutsan, neskatoak zer esan gura izan eutsan ulertu barik. Gero, kartel batean, hara non ikusten dituan “Los cinco Bilbaínos”, gaberako iragarritia.

—Rufino plazetan zelakoa zala gomutetan dok? Zuekaz eta jenteagaz zelakoa zonan?

—*Bera joteko beti prest egoten zan, baina, bazkal ostee-tan, esaterako, saio luzerik ez jakon gustaten. Ekitalditxo bat egin eta lotu, gero beste bat eta holan. Guri ez euskun berba askorik egiten, gu umeak izanik, adinak asko banantzen ginduzan*

*eta, baina ingurukoakaz kontulari handia zan. Batez bere, andrazkoak tentatea asko gustaten jakon.*

Rufinogaz pare bat urte eginda, Txetxugaz bikote ebile-nean, Roberto Kepa Junkeragana joaten hasi zan, gurasoek bideratuta. Txetxuk berak be kontetan dau zelan esaten eutsan Robertori: **"Hi! Hemen bizkortu egin behar dok, eh! Beti tradizional hutsean lotu barik, gauza barriak bere ikasi behar dozak"**. Urtebete inguruan, Kepa Junkeragaz, gauza barriak eta joteko teknika diferenteak ikasi zituan, batez be, digitazino arloan.

*—Haren estiloa —dino Robertok— raziala zan, indarra nagusi zana eta, azken batean, sinplea. Sinplea eta gogorra. Horregaz ez nabil ezer kendu guran, sarritan hunkigarriena sinpletasuna bera izaten da eta. Hareen buruan, birtuosismoa ez neuke esango, baina baegozan efektu batzuk, hauspoaren erabilkeran, batez bere. Dana dala, alderik handiena erreperatorioan egoala uste dot, gehienbat, biribilketea, jotea eta arinekoa (porrusaldea) jotzen eben eta. Rufinoren-eta dohaia ez zan teknizismoa, jotzen ebenari brabotasuna ezartea baino.*

*—Osterantzeko piezak be jotzen ei zituan, Benidormen ikasi eban "pajaritos", esaterako.*

*—Bai, eta beste batzuk bere bai, "tani que me tani" eta holakoak. Orduan hain entzuna zan Carreroren kantea bere sarrri jotzen eban, baina bere erara. Berez, 3/4 konpasa dana, baltse erritmokoa, Rufinok ez eban zan moduan jotzen, konpas ba-*

tzuk janaz eta erritmoa bere erara egokituaz baino. Grazia handia egiten euskun. "Carrero Rufinoren estilora" esaten genduan.

—Hik heuk, handiagotan, trikitalari lez plazarik plaza hasi hintzanean, Rufinogaz batera jo izan heuan?

—Inoiz bai, halango okasinoren batean edo bestean, baina ni Rufinogaz umetan ibili nintzan, batez bere. Kepa Arrizabalagaz hasi nintzanean, Rufinok larogetazak urte eukazan. Pieza barrien txapelketara, Kepagaz joatea pentsa neban eta holtaxe joan ziran gauzak. Irabazi egin genduan eta gogoan daukat zelan Kepa eta biok Rufinori saria eskeintzera joan ginan.



Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria Bermeon, 1997ko arrantzale egunean, bertako koadrila bategaz.



Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria, EITBko pieza barrien txapelketan.

## TRADIZINO BATEN JARRAIPEN GAURKOTUA

Roberto Etxebarria Goikoetxea Gatikán jaio zan 1969ko abuztuaren 8an. 1994ko bagilaren 25ean, Gatikako bertako Iduurre Erauskinégaz ezkondu zan eta hiru ume daukiez, Jon, Ane eta Miren. Roberto Rufino Arrolaren jarraipen gaurkotua dala esan geinke, ze, batetik, errepertorioan eta joteko eran, alde handi samarra dagoana bistan badago be, bestetik, Kepa Arribalagagaz bikote ibiltan bardin jarraitzen dau, Rufino bera Kepagaz, Txetxugaz edo Eusebitogaz ibili ohi zan moduan eta inguruan. Talderik inoiz ez dau euki, "paperetik plazara" izeneko emonkizuna besterik. Bertan, Jon Enbeita eta Ireneo Ajuria bertso paperen kantari zirala, musikari talde bat hornidu eben, soi-nuaz eta panderoaz ganera, baxua, gitarrea, teklaua eta abar sarturik. Dino:

—Jon Enbeitaren ideia izan zan. Esperientzia polita izan zan. Hainbat plaza egin genduan, gehienbat Bizkaian, baina en-

*tseiu asko egin behar da, behar handia eskatzen dau eta denpora luzea kentzen deutsu.*

Robertok eta Kepak trikitiaren bikote irudira mugatzea erabagi eben eta horretantxe dihardue urteetan, era guztiz tradizionalen. Eurak dira Mungia aldeko eta Uribe Kostako bikote printzipala. Umetan, bai tekluan, bai trikitian hasi zanean, zalea ala agindu beharrekoa ete zan itaundurik, dino:

—*Gehienbat gurasoakaitik zala uste dot. Ama esku onekoa zan ni engainaten: “Jo horixe, kanta polita da eta”. “Aspaldion ez dozu ha pieza hain dotorea jo”. Holakoak esanda, poztu eta harrotu egiten ninduan. Gero, auzoko jaietan joteko ilusinoa eukiten nebala bere oso gogoan daukat. Ganera, Rufinogaz joaten ginanean, beti emoten euskun zeozer eta hori bere umeentzat pozgarri izaten da. Halan bere, nik trikitian aurrera urten badot, gehienbat etxeko berotasunagaitik eta bultzadeagaitik izan dala uste dot*

1988an, Bizkaiko txapelketea zan Leioan eta Txetxu Urrutiagaz bigarren egin eban, Kepa Junkeraren atzetik. Hurrengo langa handia Zeanurin aurkituko eban, hogeta bi urtetik beherakoen txapelketan. Panderojole gaztea falta eban eta Kepa Arrizabalagak dinotso: **“Kabendies! Semeari esango deusat”**, eta bihamonean han jatorko Keparen semea, berau be Kepa izenekoa, panderoagaz etxera, entrenetan hasteko. Eguna heldu zan eta

bosgarren geratu ziran. Hurrengo urtean be aurkeztu zan Zeanu-  
 tira, oraingoan Kepa Arrizabalagaren loba Ainaragaz, Gatikakoa  
 berau be. Orduan ez ziran finalerako sailkatu, behar bada, antola-  
 kuntzeaganeanako protesta koplak kantau zituelako. Pieza obligauen  
 artean, dantza pieza bat sartu ei eben laugarrentzat, tangoa edo  
 zana. Roberto eta ez etozan nobedade horregaz bat eta, kanpora-  
 ketako saioan, euren desadostasuna agertu eben, trikitilari txa-  
 pelketan halako piezea sartzea kritikauaz. Behar bada, ez ei zan  
 horregatik izango, baina urte haretakoa hantxe amaitu jaken, fi-  
 nalera sartu be egin barik. Hurrengo urtean be aurkeztu ziran Ai-  
 nara eta biak eta oraingoan bigarren geratu ziran.

Artean, pieza barrien txapelketak hasita egozan, Euskal  
 Herri mailan eta adinaren muga barik. Oraingoan Kepa aitagaz,  
 finalerako sailkatu zan eta, 1991ko San Jose egunean, Donosti-  
 ko Anoetan, trikiti piezen lehenengo saria atara eben, Jon En-  
 beitararen "*bihorzetik bihorzari*" koplakaz. 1992an be finalerako  
 aukeratuak izan ziran eta porrusaldan lehenen egin eben, he-  
 men be Jon Enbeitararen "*mutlitzaharrik*" koplakaz. Gero, hainbat  
 urtean izan ei ziran pieza barrien finalan, baina sarituak izan  
 barik, Anoetako bizkaitar bakarrak zirala. Robertoren berbetan:

—Donostikoa indarkada handia izan zan niretzat, baina beste  
 trikitilariakaz ez neukan hartu-emon handirik. Pentsa, goizean Zier-  
 banan jota joan ginan, bazkaltzeko asti barik. Brin-brauu agertu eta  
 lehenengo saria. Gauzak nahikoa arin pasaten jakuzan orduan.



—Finala heunkala jakinik, ezin izan heuan ha eguna, behintzat, librau, Euskal Herriko beste musturrean konpromisotarik hartu barik?

—*Nik neuk gurago dot martxan ibili, etxean nasai lotu barik, ze nasaitu bere ez zara egiten. 1992an bere antzekoa egin genduan. Bezperan, afari batean egonda, etxerantza alegre-alegre gentozala, hara non presentaten jakun bidean kontrola. "Gure biharko finala esku onetan jagok oraintxe", pentsa neban. Aurreko autoa lotu eben eta guri aurrera emon euskuen. Kepak dino: "Hau ospatu egin behar joagu", eta, Mungian beste trago bat jorik, biok bere polito ailega ginan etxera.*

Joteaz ganera, Roberto irakasle be badabil, bere emazte Idurreren eta Bakioko Idoia Markaidaren lankidetzan. Hiruren artean, berrehun ikasletik gora darabile eskuetan, hainbat leku ezbardinetan: Bilbon lau lekutan —Begoñazpi eta Kirikiño ikas-toletan, Euskal Dantzarien Biltzarrean eta musika eskolan—, Mungian, Gatican, Zeanurin, ikastetxe batzutan, Getxon... Gehienak umeak dirala, jente nagusirik be ez ei jake falta.

—Emaztea lankide izatea abantaila handia izango dok.

—*Bera bere ikasle izan neban.*

—Ah, bai? Eta?

—*Berak hamasei eta nik hamazortzi urte geunkazala, etxera etorten zan, akordeoitik trikitira egokitzero. Hasi ginan eta begitu noraino heldu garan, hiru ume hor dabilteze eta.*

—Soinutik maitasunera egokitzea zelan izan zoon? *"Bihotzetik bihotzari"* entseiauz?

—*Noiz eta zelan hasi zan ez daukat oso gogoan.*

—Bihozkadak eta belarrondokoak gogoan geratzekoak izaten ei dozak, ba!

—*Nik uste dot nahikoa espontaneoa izango zala, umetatik ezagunak ginan eta. Ez daukat halako une apartekorik edo gezi kolperik gomutan. Musikeagaz batera, bestea bere astiro-astiro aurrerantza etorriko zan.*

—Gatozan barrero musikara. Hire ikasle sasotik hona, alderik sometan dok?

—*Lehenago, jentea gauza handien esperantzan etorten zan, baina orain ez dabe halako helburu puzturik ekarten, ondo pasateko lain ikastea baino. Umeak bere, lehenago, figura usainean etorten ziran, baina orain anbizino hori asko txikitu da.*

—Anbizinoa txikitu eta zaletasuna handitu? Zelan dok hori?

—*Trikiti txapelketak eta izan ziranean, kolpe handia izan zan. Euforia horreri eustea oso gatxa da. Ganera, ikasleak figura goserantz orientatetik, porrota baino ez dator. Osterantzean, trikiti zaletasuna argi dago gorantz doana, Bizkaian behintzat.*

Robertok eta, 1993an, *"Bihotzetik bihotzari"* izeneko diskoa atara eben. Joandaneke sei urtean, ba ei darabil beste disko bat buruan, trikitia zabaltxoago hartuta, aprobetearren lez eta

inongo helburu handi barik. Konposiziorik edo ikasi dauen itaundurik, berak gehiago intuizinoz jokutzen dauela dino. Sorrenari jagokonez, arazorik handiena astia ei dau. Adina be gorantz, familia, hiru ume... Astia eta baldintzak alde baleukaz, zer ingo leuken itaundurik, dino:

—*Lehengoan irakurri neutsan, ez dakit nori, berak aro bat igaro ebala, jo egiten ebala demostrategoa. Gero, hogeta hamabost urte ingurugaz, une bat etorri jakola, unerik onena, ezer demostra beharrik barik joten ebana. Neuk bere holakoxe zeozer gura neuke, dagoaneko badaukadaz hogeta hamahiru urte eta.*

—Disko barri hori zelakoa izango dok, estilo aldetik esan gura joat?

—*Estilo tradizionala era askotara garatu daiteke. Auzia da beste tresnak, gitarrea eta abar, zertara datozen. Soinuari eta panderoari laguntzera badatoz, ez dago problemarik. Beste kontu bat da, tresnai euren pisua eta protagonismoa ezarri gura bajake. Orduan influentziak eta betiko kontuak datoz; eta nongo influentziak, gaur egun, musikea nahikoa globalizata dago eta. Neurri handi batean, nobedadeak bakarrik funtzionaten dau. Ezer egitekotan, formato txikerrean egingo neuke eta, soinu aldetik, ez dot gura aparatosoa izan daiten.*

## ESTILO BATEN JARRAIPEN LITERALA

Imanol Arrola Beaskoetxea, artean mutikoa zala, trikiti jotzen ikusi genduanok txunditurik gelditzen ginan, harengan Rufino Arrola ber-ber-bera ikusten gendualako martxan. Jokeran, plantakeran, keinuetan, Rufinoren kopia zehatza zan, hirurogeta hamar urte gitxiagogaz. 1968ko zezeilaren 10ean, Leioako Txopera auzoan jaio zan gizon hau kontulari ugaria eta kontulari gogotsua da. 1996ko zezeilaren 12an ezkondu zan Alcira Bandeiragaz, Galizia-ko odolera zubi eginaz. Mutiltxo bi daukiez, Zuhaitz eta Egoitz.

Imanolen aitita Narziso Arrola Rufinoren lehengusua zan, bera be trikitilaria. Imanolen aitak be, Pedro Arrola zanak, (bereztat bizitzan ia dan-dana izan dan aitaren heriotzatik oraindino bururik jaso ezinik dabilela dino) zeozer jotzen eban mutikotan eta baserrian ba ei zan soinu zahar bat, jaietan han-hemen apurturik gelditua, aitak barririk erosteko dirurik ez eukalako. Denporea aurre-ra joiala, Imanolen aita Rufinogaz hartu-emonean hasi zan, baita, geroago, soinu bat nonondik jirau eikion aitatu be. Rufinok soinu zahar-zahar bat topau eutsan gizonari eta barriro han-hemen jotzen hasi zan, harik eta aitak itzi eta Imanol mutikoak hartu arte.

—*Nik hamar bat urte izango nebazan. Hasten nintzan kantalataraten eta lortu egiten neban, musikarako belarri ona izan dot beti eta. Aitak Rufinori esan eutsan: "Honek jo egin gura leuke", eta Rufinok: "Ba, ekarriak". Joan ginan Andrakara eta gure soinua eta harena ez etozan tonuan bat. Rufinok esan eban: "Mutiko honeri beste soinu bat erosi behar jako". Hurrengo egunean, aitak Zarautzera joan eta soinu bi erosi ebazan, bata neuretzat eta bestea Rufinorentzat, biak bardin-bardinak. Tresnokaz hornidu ginanean, aitak edo anaiak astero eroaten ninduan Leioatik Andrakara.*

Mutikoa hirurogeta hamar urteko irakasle-errementariaren aurrean daukagu. Jakitekoa da holako gizon batek, irakasteko teknikarik sekula landu ez dauenak eta, musikan, belarriaz beste gidaririk ez ezagutzarik ez daukanak, zer metodo "berezko", zer intuizino erabili eikean ikustea. Rufinok aplikauko eban metodoa Roberto Etxebarriagandik ezagutzen dogun berbera da, baina merezi dau Imanolen ahotik gehiago osotzea, koadroa imajinetan sekula ez gogaitzekoa da eta:

—*Bakotxa geure soinua paparrean, alkarren aurrez jesarren ginan eta "sakatu botoi honeri, zabaldu, itxi, orain beste botoi hau" esaten eustan, berak bere soinuan egiten ebana nik neurean egin behar nebalarik. Halan, dozenerdi bat botoiri sakatu eta melodia zatitxo bat osotzen zanean, luzeegia izan barik beti bere, ekiteko haxe jotzen agintzen eustan eta bera barrara edo joaten zan, taberna izanik, etxe haretan beti ebilen baten bat eta. Lantzean behin,*

gelara sartuko jatan eta, **"zelan joak hori?"** esanik, barriri joango zan, edo, ezinean banenbilen, atzera lehengo ariketa bera eragingo eustan. Kanta edo tritiki zati oso baten notak zeintzuk botoitan egozan ikasita urten behar neban gelatik. Gero, aste barruan, ez neukan haxe neure kontura atara eta praktikatea besterik.

—Heu ahalegintzen hintzan, ala, gehienen kasuan lez, etxekoek sakatuta?

—Oh! Ni orduan zoriontsu nenbilen, pozaren pozez. Etxe inguruan, auzoak zoratuta neukazan, esanaz: **"Hi, txotxo! Ea beti gauza bera joteari izten deutsaan nonoiz!"**. Andrakara joateko eguna noiz etorriko ilusinoz egoten nintzan, ez ikasteagaitik bakarrik, Rufinogaitik beragaitik baino. Pertsonaia bat zan. Eta niretzat



Imanol Arrola, bere aita Pedrogaz, etxeko ezkaratzean.

*aitita bat. Batzutan, opor sasoiari eta, "lotu gura dok bertan?" esaten eustan eta ni pozez zorutzen. "Guzi" motor bat eukan eta arrantzan joaten ginan, hamarratzen eta. Txisteak eta istorioak bere hainbeste kontatzen eustazan. Andraga niretzat abentura totala zan.*

Lehenengotan, eskumeagaz bakarrik ikasten eban. Rufinok ezkerria erabilten irakatsi be ez ei eban egiten. **"Behetik bahabil, honeek botoi biok; goitik bahabil, beste honeek biok"** —esaten eutsan. Terminologia be halakoxea gero! "Gora", "behera", "honeek biok", "beste honeek biok", "igon", "jatsi"... **"Zoratuta ibiltzen nintzan"** —dino Imanolek. Begira ikasten eban, ikusia imitauaz. Imanol bera be irakasle ibilia da zenbait umerekin, sekula ezer kobrau barik, berari be Rufinok guztiz doan irakatsi ei eutsan eta. Kasu bat ez dauka ahaztuta. Gizon batek eskaturik, haren mutikoari irakasten hasi zan eta, zeozer irakastea lortzen ebanerako, ahaztu egiten ei jakon. Barrero ikasi, barrero ahaztu, holantxe igaro ei ziztuan hiru urte, azkenean, gehiago ez etorteko agindu arte. Rufinoren metodoa Imanolek ertzeraino eroango eban, oso era zelebrean. Izenik aitatuko ez dodan herri batean, Leioatik asago, hiru nebarrebari irakasteko deia hartu eban jatetxe batetik. Lau soinu euki arren, laurak bizkarrean hartuta ez zan joango, bera be, hamazazpi urte eukazala, inork eroan behar eban eta. Halan, soinu bakarra eroaten eban, baina nebarrebeak, zortzi, hamaika eta hamahiru urteko neskato-mutikoek, ez eukien soinurik bat be.

—Ez zenduen, ba, soinua lau zati egingo!

—Zagoz isilik! Iladan paraten ziran, neu bere euren aurrean jesarten nintzan eta soinuari, pare bat botoitan, trin-trin egiten neutsan. **"Ikusi dozue?"**. Trin-trin! Orduan neure soinua bizkarretik atara, euretariko bateri imini eta trin-trin jo eragiten neutsan, gero atzera kendu, bigarrenari imini, honeri bere trin-trin jo eragin eta, ondoren, hirugarrenari bere bardin. Honek trin-trin egiten ebanerako, lehenengoak ahaztuta eukan. Hirurari nota bi irakastea lortzen nebanean, beste nota bi hartu eta erronda bardina egingo genduan. **"Nota biok zabaltzen, honeek biok ixten"**. Kendu soinua, imini, azkenerako zoratu behar. **"Honeei erosi soinu bat edo, osterantzean, ni gehiago ez nator"** —mehatxu egiten neutsen gurasoai, baina zer danik bere ez. Azkenean, mehatxua betetea erabagi neban, hiru hilabetean alperrik bueltaka ibili eta gero.

Edozein filmetako eszenarik deigarrienari ez deutso zorrik soinu bakarraren multiplikazio endredoso honek. Rufino Arrolaren metodoa efektiboa zan, antza, behingoan hasten baitzan ikasle txikiak beragaz hara-hona eroaten. Imanolek dino:

—Hamabi urte neukazala, Erromoko taberna batean jotzen genbilzan, bera eta biok soinuan, eta Kepa Arrizabalaga panderoan. Hatan, mozkor bat sartzen da eta mosuka hasten jat. Gero badao Rufinogana eta hareri bere bardin. Rufino oinaztua lez goritu zan. **"iMekabuendios! iTe pego una hostia! ¿A mí un hombre dar-me un beso?"**. Ostikoka atara eban tabernatik.



—Hamahiru umeren aitari gizonezko batek mosua emotea handitxoa dok, izan be.

—*Rufinori sarri entzun neutsan bere osaba Andres Arro-la (neure birraitita zana) birritan joan zala gerrara: behin deiturik edo altzaurik eta beste behin auzoko baten orde. Honek gerreri bildur handia eutsan, antza, eta Andres haren lekuan joateko prestau zan, diru baten truke, baita joan bere, auzokoaren izen-abizenakaz. Rufino bera bere gerran urte piloa egina zan eta osaba Andresenagaz esan gura eban Arrola kastea ez zala munduan ezegaz bildurtzekoa.*

Herri batera trikitilari talde bi joan ziran eta, kalejirea egiterakoan, batzordekoek esan ei eutsien: **“Zuek kale honetatik joango zarie eta beste trikitia beste kale haretatik eta hain tabernatan bat egingo dozue”**. Hasi eta eurak heldu ziran aurretik tabernara, han joten jarraituaz. Orduan ohiturea edo errespetoa ei zan, lehenen heldutakoak joten baegozan, atzetik etozanek isildu eta aurrekoai itzi behar eutseela joten, baina besteak heldu ziranean, soinu-lariak, —mediokre samarra ei zan bera—, ikasi guran edo bera be zeozer bazala erakutsi guran, isildu beharrean, Rufinogaz batera jarraitu eban. Honek bere hauspoari kabendioska ziharduan. Hala-ko batean, soinua braust zarratu eta aldarrika hasi ei zan: **“Zer demonino pasaten jak hiri? Hik ez dakik behar danik errespetaten? Ala arpegia berton apurtzea gura dok?”**. Imanolek jarraian, Rufino eta bera lakoai buruz, obserbazino jakingarri hau egiten dau:

—Joten ziharduanean, ez eban gura inork berbarik egin eion, ze guk, dana belarriz ikasi dogunok, nonor ondotik berbetan bajatorku, huts egiten dogu. Ez da solfeoak edo musikeak lagun-duta ikasi dabenen moduan. Honeek igual dabiluzuz jotea joten eta zeugaz berbetan, albora begira. Guk kontzentrata jo behar izaten dogu eta Rufinok bere holantxe joten eban. Zigarroa ahoan ebala, zaratatxo mehe bat egiten eban, nrrr-nrrr-nrrr, soinuaren zarata-pean, hur-hurretik bakarrik eta doidoi entzuten zana, ezagutzen ez ebanak ondoan animaliatxoren bat egoala pentsateko modukoa. Soinulari bakotxak bere jestu berezia dauka. Sarritan fija naz eta danek daukie. Fasiok barre antzeko keinuak eta tika eukazan, ni neu serio-serio paraten naz. Rufinorena zigarroa eta eztul txikia zan, eta hautsa arkondarara, txingarra jausi eta kabuendioska hasten ez zanean.

Imanol Arrolak Rufinogazko lehenengo urtekerea Barakaldora egin eban, Andrakan, Rufinorenean lo eginda. Hamaika urteko mutiko batentzat, osogai amesgarri guztiak ekarzan gaba. Zapatu arrastian, Barakaldoko kiosko batean jorik, domekan be bardin ekingo eutsien, barriro Andrakan lo eginda. Eta, azkenean, —ha ustebakoa!—, Rufinok ez deutzaz, ba, hamabi mila pezeta emoten, egun bakotxeko sei mila?

—Halangorik! —txunditzen da oraintxe be Imanok—. **Aita! Begitu Rufinok zer emon deustan!** —esanaz sartu nintzan gabaz etxean. Beti-beti ordaintzen eustan, txiki-txikitarik. Eta,

*lantzean-lantzean, esango eustan: "Otarteko bat gura dok?". Ni neu, Rufinorentzat, oso asagoko senidea banintzan bere, benetakoa aitita batek lez hartzen ninduan.*

Leku guztietan izan ohi diran aurrerati horreetarikorik korruan sartzen bajaken, Rufinok laster bialduko eban kanpora, onean edo txarrean. **"Han ez egoan sartzerik!"** —dino sikuan Imanolek. Beti izaten da jente jakitun samarra be, **"jo hau"** edo **"jo hori"** esanaz hurreratzen dana, eta Rufinok erantzuten ei eban: **"Badakizu zer pasa jatan? Partiturea etxean itzi dot eta piezea ahaztu egin jat"**. Hori suabeen erantzutea otutzen jakonean, ze, laztetik emoten baeutsan, hots egingo eban: **"Hi! Aldeik hemendik! Guk geuk gura doguna joko joagu, entzun? Halandaze, ospa hemendik, beste era batera joan gura ez badok"**. Bat-batean, Imanolen aurpegikerea aldatu egiten da eta, berbak astunduaz eta astirotuaz, dino:

*—Nik Rufinori karino handia neutsan eta berak bere bai niri, baina, ez dakit zelan esan, alukeria egin eustan. Neu, behintzat, ederto izorrau ninduan. Hamalau-hamabost urte izango nebazan, esan eustanean: "Hi, Imanol! Hi heure kontura ibilteko moduan hago". Bere ondotik bialtzeko modutzat hartu neban. Berak, beharbada, ondo beharrez jaregingo eustan, baina nik asko senti-du neban aparta beharra.*

Denpora goibel baten buruan, ez zan dana txarrerako izan,

ze Tomas panderojoleak Portugaletetik deitu eutsan, esanaz: "**Hi! Etorriko haz neugaz Alderdi Egunera, Gasteizera?**". Baietz erantzun eutsan eta joan egin zan, "**zorionez, hatan be**", —dino berak—, han Txilibrin ezagutzea egokituko jakon eta. Hau beste soilarari bategaz joana zan eta, jotaldi batzuk eginik, Txilibrinek hurreratu eta dinotso:

—*Hi, mutiko! Panderojolerik ez dok behar?*

—*Nik pentsaten neban* —dino Imanolek—: "**Txilibrinegaz berbetan naiagok? Zu Txilibrin zara benetan?**". *Niretzat ha ezagutzea itzela izan zan. Txilibrin, panderojole eta albokari famadua, han ikusten neban berbera, neuri proposamena egiten. Eguna Txilibrin ezagutu izanaz aluzinaturik igaro ondoren, Txilibrinek, Deustuko Euskal Etxera, hurrengo zapatuan beragaz joateko konbita egin eustan. Rufino bere han sarritan egona zan eta Euskal Etxeko Bixentek dinost: "Hi Rufinoren ilobea haz, eztok?" —"Iloba-ilobea bere ez, baina banintz lez" —erantzun neutsan eta berak: "Joik jota bat Txilibrinegaz. Baina hauxe, eh!". Rufinoren jota jakin bat zan eskatu ebana eta hasi ginan joten. Txilibrin artista zan, bai panderoan eta bai kantaten, eta neuri bere itxura ona hartu izango eustan Bixentek, ze badino: "Gaurtik aurrera zeuok biok gura zaituet hemen".*

Halantxe batu zan Txilibrinegaz eta bai arin zabaldu be, han-hemengo plazetan, ez Euskal Herrian bakarrik, baita kanpoetan be, Txilibrin horretan artista ei zan eta. Hamazazpi-hama-

zortzi urteko mutil batentzat, aluzinantea izan behar eban harek. Imanolek, lantzean behin, Andrakara joaten jarraitzen eban eta inoiz Rufino tentau egiten ei eban, zenbat saiogaz ebilen eta abar.

—*Rufinok "hau eta hori eta bestea" eta nik "han eta hor eta hemen" eta holan ibiltzen ginan eta, batzutan, niri berari baino plaza gehiago urtetzen eustan eta, inoiz, engaina bere egin gura izaten ninduan, plazen kopurua handituaz. Nik uste dot inbidia apur bat hartu eustala, ze berak Txilibrin ez eban inoiz begiko izan. "Bibotehaundi hori!", "zarraparrero hori!" eta halakoak esaten ebazan.*



Ezkerretik eskumara, Silbestre Elezcano "Txilibrin", Imanol Arrola eta Tomas Uriarte, Bilboko erakustazokan, 1992an.

Txilibrin Amerika osoa korridua zan, ballet dantzan eta alboka joten, baita Espainiako eta Europako hainbat leku be. Txartel eta guzti, harek propaganda ondo estudiauta erooten ei eban. Dantzaria be bazanez, gimnasia handia eta prestakuntza fisiko itzela eukala dino Imanolek. Bartzelonan, Saloun, Tarragonan, Valladoliden... eta Frantziako eta Europako hainbat lekutan izanak dira, segun non, behin baserritar jantzita, behin uniforme bilbotarragoaz, kaiku gorria eta abar. Pentsetakoa da atzerrietako ikusleek zer eritxiko eutseen hogetazak urteko mutil gazteari eta larogeirantz hurreratzen joian agureari, halako bikotea osotuz.

—*Gu geu kolegak lez konpontzen ginan. Kanpoan genbilzanean, hotelean, beti logela berean egiten genduan gaba. "Joango gozak tragotxo batzuk jotera?". "Hi! Frantzian bere neska galantak jagozak, eh!", eta holan ibiltzen ginan. Txilibrinen inguruan ez egoan kokolo ibilterik.*

Ibileren gomutarik gehienak atseginak baditu be, Karrantzako herri batekoa ez dauka ahazteko. Batzordekoek eginbeharrak azaldu eutseezan, kalejirak hemendik, gero kioskoan, ondoren tabernetan, eta halan. Joten hasi ziran eta inork aurpegira begitu be ez ei eutsen egiten. Tabernetako tragoak, ordaintzeko planteak egin arren, inon ez kobretea ohitura ziranak, Karrantzako herri horretan, danak eta danetan kobrau ei eutseezan.

—Gatozan barrero Rufinogana. Hi joten ikustea egundoko txokea zoan, trikitiaren eboluzinoaz apur bat jakitun gengoanok higan Rufinoren doble egin-egina ikusten gendualako, ha zaharrean eta hi gaztean. Beharbada, identifikazino hori heuri ez jak askorik gustauko.

—*Gustako ez jat, ba? Nik argi eta harro daukat Rufinogaz ikasi nebala, eta berak irakatsi eustan modu-moduan jarraituko dot beti, besterik ez dot ikasi eta. Rufinok, joten ez ezik, jokera bat, estilo bat transmitidu eustan.*

—Zein dok jokera hori? Rufinoren estiloa esan geinken hori?

—*Rufinorena danakandik diferentea zan. Beno, beharbada giputz estiloa eta bizkaitar estiloa esan beharko geunke. Bizkaiko jokerea, ondo esplikaten ez dakit, baina kasta handiagokoa da, gel-ditze bruskoak daukaz, indartsuagoa da. Giputz estiloa jarraituagoa, ligatuagoa da.*

Imanolen azalpenetatik, oker ulertu ez badot, estiloaren alde nagusia digitazinoan eta hauspoaren erabileran dago. Imanolek-eta, oro har, nota gitxiago joten dabe, besteek apaingarriak egiten dituen bitartean. **“Nik hogeia nota joten dodazan lekuan, besteek igual berrogei joko dabez”** —dino—. **Azken batean, belarritz gabiltzezanok notak ondo ezagutzen ez doguzalako da**. Besteek, hauspoaren zabal-itxikeran, alde bererantz nota gehiago aurkitzen eta jarraituago jotzen daben bitartean, eurok hauspoari aldakuntza bruskoagoak eragiten ei deutsez, haizearen presinoa

eta, beraz, hotsa be aldatuaz. Horrek estiloa etenago eta gogorra-  
go egiten dau. Notak ondo ezagutzen dituanak errezago konpagi-  
netan ei dau dana.

—Txilibrinek, honezkero, oso zaharra izan behar jok.

—*Bai. Denporea da Txilibrinegazkoa amaitu nebana. Gero Eusebitogaz jarraitu neban, honegaz betidanik ibili naz gitxi-asko baina.*

—Beti zaharrakaz?

—*Holan norbera beti gazte!*

—Rufinogaz traturik izan heuan bere azken gaixoaldian?

—*Ez handirik. Behin, joan ginan eta han egoan txapa ondoan, begiak jausita. Soinua bere jo neban, aitak esanda, baina ez zan animaten. Aitari esan neutsan: "Aita, ni gehiago ez nator hona. Nik ezin dot hau gizonau holan ikusi". Bihozkadeak emon eustan, hurrengoan jausiago eta penagarriago aurkituko nebala, eta ez neban gura haren aurpegia heriotzara hurreratzen geratu ekidan. Rufinoren irudi biziagoa gorde gura neban eta azarta egin neban, handik hilabetera hil zan eta.*



## ZAHARRETIK BIDEOKLIPERA

Rufino Arrolaren tradizionaltasun harroak ez eban kontraesanik aurkitu, bideokliparen modernidadean sartzeko. Aurretik, "Andrakaseko errementaria" izeneko kanta bat atera eutsan Kepa Junkerak bideokliparena proposatu eutsanean, "zer dok hori?" itauntzetik baietz erantzutera, ez zan denpora luze-rik joan, bere burua, irudi eta guzti, lanaren erdigune izango zala jakin ebanean.

—*Bideoklip hori egin gura neban, —dino Junkerak—, bere bizitza osoa hartuaz: musikea, errementaritzea, bere seme-alaba ugariak, bere nortasuna, jente hori zelan transformaten dan, ze nik uste dot Rufino, trikiti joten hasten zanean, transforma egiten zala. Nerbioa, energia, indarra, horixe zan haren estiloa.*

Trikitia muga barik garatu dauen musikari moderno, bilbokume eta ospetsu bat Rufino Arrolaz xarmatzera zelan heldu zan eta haretaz zer dinon jakiteak aparteko interesa dauka lan honetan.

—Bizkaian beti trikitilari bik harritu izan nabe, Rufinok eta "Fasiok", Bonifazio Arandiak. Hau musikearen poeta bat la-koa zan. Tonu minorrak maite ebazan, delikauagoa zan. Rufino, barriz, horren antitesia zan, indartsuagoa, leihakorragoa. Konparazino polita eta interesgarria sortzen da bien artean. Rufinok soinua bere askoz agresiboagoa erabilten eban, Larrinaga-Gue-rrinia. Soinu hau indartsuagoa eta inpaktanteagoa da. Fasioren Paolo Soprania, ostera, zeragoa zan, bigunagoa, gozoagoa, La-rrinageagaz bere jotzen eban baina. Hareek ezagutzea suberte handia izan zan niretzat, aurreko mailai eskerrak gatoz eta.

Kepa Junkerak "betiko trikitixa" izeneko produkzioa egin eban, trikitiak dantza lotuan egin ebanaren mostra bat jasoaz. Trikitilari tradizionalak jo ohi zituen tangoen, baltseen, pasado-bleen eta ganerakoen errepertorio adierazgarri bat osotu eban, beste musika batzutatik trikitira zelako jeneroak eta zelan ego-kiturik sartu ziran ikusteko. Eta, jakina, Kepa Junkerak, bere bi-laketan, danerik aurkitu ei eban, musikaririk herritarrenean be, jeneroak eta gustuak nahikoa mugabakoak dirala konprobetako. Horretan, Kepa Junkerak autortzen dau Rufinok, behin, Beni-dormera joan zan batetik bueltan, "pajaritos" kantea ekarri iza-nak egundoko grazia egin eutsala. Rufinoren estiloaz itaun-tzean, dino:

—Rufinok bere burua figuratzat eukan, ez, bazala sines-ten ebalako bakarrik, halantxe plazaratu behar zala uste ebal-

ko baino. Haren joteko modua bere figura moduan zan, paparra atarata, inpresiona guran, eta hori benetan ederra da, bai barruko jarreraz, bai kanpoko agerpenez. Plazara zoaz! Ez zoaz biagora, plazea menperatzera baino, **"hemen naiagok ni"** esanaz. Trikitilari zahar askoren buruan, plazea temea zan, oilar burrukea lako bat. Ni trikitira hurreratu nintzanean, Gipuzkoakoa landuago, aurreratua aurkitu neban, frantsestuago, zelanbait esateko. Eta errepertorioa bere handiagoa eukien. Rufinok ez eukan errepertorio handirik, baina bai inpresionateko eta jentea durditzeko grinea eta norik plaza gehiago egiteko lehia. Musikea ulertzeko era ruralagoa zan, herri kirolari lotuagoa, ia herri kirol bat gehiago balitz lez. Jokera sinpleagoa izanik, indarra baloraten zan. Nik, jakina, hori guztia kanpotik ikusten neban, baina inpresino horixe egiten eustan.

Kepa Junkerak, artean gaztetxoa zala, Rufino, aurrez aurre, Iurretako urteroko herri musika jaian ezagutu eban. Handik urteetara, Txetxu Urrutia lekuko danez, kosta jaken Rufinori Iurretako omenaldia onartu eragitea. **"Hor omentzen dabena gero atoan hilten dok"**, esaten ei eban. Azkenean, baietza lortu eben eta Rufinoren premonizinoa bete egin ei zan.

—Indarrarena ulertzen joagu, baina jokera "sinpleagoak" zer esan gura jok?

—Nik uste dot —dino Junkerak— gorabeherarik handiena instrumentuaren ezagutzan dagoala. Zenbat eta gehia-

*go ezagutu, ahalbide gehiago ataraten deutzazu, baita beste musika mota batzutara zabaltzeko bere. Tritikilari zaharrek ez eben euren instrumentua larregi ezagutzen. Ez ekien inpernuko hauspo hareri zenbat deabrukeria atara ekikeon. Rufinok-eta, ganera, erpurua soinu hegalaren azpira sartzen eben, teklauari oratzen lez joten ebela. Hori guztiz posizino antiteknikoa da. Libre lotzen ziran beste lau atzamarretarik, barriz, hatz txikerra oso gitxi erabilten eben, batzuk, esateko, inoiz bere ez. Ezkerreko atzamarrak bere, bia eta hirua, ez dira teknikoki egokienak.*

Roberto Etxebarriak azaldu eustan eskumako erpurua soinu hegalaren azpian sartzeak arrazoi mekaniko bat daukala. Antxinako soinuek ugal bakarra ei eukien sorbaldara eta eskuman, teklau hegalaren azpian, erpurua sartzeko ugalezko begitxo bat, soinuari ondo eusteko. Holan, oster, erpurua bera be helduta geratzen zan, beste atzamarrak, teklauan gora eta behera, eskutur biraz ailegetan zirala. Imanol Arrolak dino berak oraintxe be badaukala etxean halako soinu bat. Rufinok soinu mota honexegaz ikasi eban eta gero, trikiti modernoagoak etorri arren, bere era zaharrean jarraitu eban. Imanolek gogoan dauka zelan Rufinok esaten eutsan, erpurua azpira sartu beharrean, ertza-ren kontra finkatzeko, halan beste atzamarrak errezago mogitzen zirala teklauan eta, baina berak be Rufinori ikusitako moduan ikasi ei eban.

—Orduan, berba bitan, Rufinoren estiloa zelakoa zala esango heunke? —itauntzen deutsat Kepa Junkerari, bere eritxia laburbildu guran.

—*Estilo mugatuagoa zan, baliabide gitxiagokoa, erreper-  
torioa bere laburragoa eukiela. Mugatasun hori indarrez eta je-  
nioz hornitzen eben eta, euren sinpletasunean, estilo xarmaga-  
rria eta guztiz efektiboa sortu eben, edo transmitidu euskuen,  
eurek bere aurrekoakandik ikasita etozan eta.*

Joseba Tapiak, 1996-10-22ko EGINen, Rufino Arrolari eta Primi Erostarberi Gernikan egindako omenaldi inguruan, dino: "Digitazioa egiteko beste modu bat zuten. Ez zituzten atzama-  
rrak guk bezala mugitzen. Guri hauspoa zaratarik gabe eta no-  
tak garbi jotzen irakatsi digute. Arrola lehengo eskolakoa zen  
horretan eta jotzeko modu horrek sekulako lilura sortzen du  
gaur ere".



Rufino Arrola  
eta  
Kepa Junkera,  
1992an.

## ARROLAREN BERAREN AHOTIK

Zorionez, egunkari eta irratietan, Rufino Arrolari eginda-ko hainbat alkarrizketa geratu jaku. Interesik daukanarentzat, iturrien orrian zerrendatxo bat izten dogularik, hona, Arrate Irratian berari eta Txetxu Urrutiari eginiko alkarrizketa batean, hainbat konturen artean, esan zituan batzuk:

*Eskolan ez nintzan balientea izan. Ahuntzak, ardiak, behorrak jagoten, bizimodu gogorra zan ha. Gero errementari egin nintzan. Gurdiak, dagozan klase guztietakoak egin dodaz nik, Euskadi guztirako. Hori neuk esatekoa ez da, baina halantxe da. Zaldi karroak, asto karroak, behientzat apur bat arinagoak, idientzat astunagoak, danerikoak, errubeda radiodunak, radio bakoak, danak egin dodaz nik. Baina 12-14 ordu beti beharrea eginda!"*

Esteban Larrañaga alkarrizketagileak inori zorrik ete eutsan itaundurik, dino:

*Nik zorra? Nik andreari zor handie dekotset. Andreagaz olgetan bere egiten nendun eta holan besteakana joan beharrik ez neukon. Nik, orduan, hareri zorra dotset.*

**Eta guk, Rufino, zeuri deusugu zor handia eta, ordaintzen hasteko, beste "olgetarik" ez jaku bururatu, zu ezagutzeko surbetea izan genduanok ezagutu ez zaituenai transmititzea baino.**



## ESKERRAK

Egileak eta Trikitixa Alkarteak bihotzez eskertzen doguz:

Rufinoren etxeakoak, batez be, Jose Luis semea eta honen emazte Rosi, Maria Jesus alabea eta honen senar Alberto, eta Tere alabea.

Kepa Arrizabalaga

Txetxu Urrutia

Roberto Etxebarria

Imanol Arrola

Gaztelupeko Hotsak

Arrate Irratia, CDan datozen pieza guztiak eskuratu deuzkuzanak

### **Beste iturri batzuk:**

Txetxu Urrutiaren grabazino bat, Rufino Arrolari eta berari Arrate Irratian egindako alkarrizketa bat, eta Tomas Sitseri eta Kepa Arrizabalagari Bilboko Radio Nacionalean egindako beste bat dakarzana.

- "Egin", 1996-10-22: "*Trikitixaren bi mito*".
- "Egin", 1996-10-28: "*Trikitixa bihotzean*".
- "Egin", 1996-02-20: "*Trikiti bizkaitarra umezurtz*".
- "Egin", II. Urtea, 194. Zkia: "*Trikitilariak: Tomas Sitse eta Rufino Arrola*".
- "Egin", 1994-06-18: "*Cumbre de la trikitixa*".
- "Euskaldunon egunkaria", 1996-02-20: "*Rufino Arrolaren hauspoa itxi da*".
- "Euskaldunon egunkaria", 1996-10-22: "*Primi Erostarbe ta Rufino Arrola gogoan*".
- "Euskaldunon egunkaria", 1994-06-05: "*Goxo-goxo dantzatzeko trikitixa*".
- "Deia", 1985-07-13: "*El acordeón de Rufino Arrola suena en todas las fiestas populares*".
- "Deia", 1978-11-29: "*El Herrero de Andracas dispuesto a dar clase gratis*".
- "El Correo español-El Pueblo Vasco", 1992-08-09: "*El oído es el que trabaja*".

# Liburuagaz batera doan CDaren edukia

- 1 - Kalejirea
- 2 - Mendi altuen edurre (trikitia)
- 3 - Mañaritik urtenda Urkiolaraino (Porrúa)
- 4 - Pasodoblea
- 5 - Gure Baserría (trikitia)
- 6 - Soinu eta pandero (Porrúa)
- 7 - Foxa
- 8 - Neskata paregabía (trikitia)
- 9 - Txikitxu polit hori, lurraren ganian (Porrúa)
- 10 - Tangoa
- 11 - Trikitia - Fandangoa
- 12 - Porrue - Arin-arina
- 13 - Kalejirea



■

**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Kultura Saila

■

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Cultura

Haren begi urdin-urdin, ia  
transparenteen begirada apur bat  
albokaran eta bizitasun agorgatxaren  
atzean, inozentzia baino zaharragoa  
dan malezia sometan zan, ondo  
begitu ezkeru.

Rufinoren aurpegikeran mailua  
eta zintzela bistan baegozan, ez dot  
uste adinaren tximurkereagaitik  
bakarrik zanik.

Eta atzamarrak! Eskumako  
erpurua soinu hegalaren azpira  
ezkutetan zala, beste laurak ez  
eitekean pentsau burdinazko  
gantxoak ez ziranik, botoietan gora  
eta behera hain bizkor mogitzen  
ikusi ezean.

Rufinogan oraindino lantzen hasi  
barri egoan burdina gordina zan.  
Baina egia da, batzutan, begietara  
begitu behar jakola, burdinearen  
arima ibiltari bategaz gengozala  
konturatzeke.

Orduan ez neban pentsauko,  
egunen batean, Vulkanoren (suaren  
eta burdinearen jainkoaren) atzamar  
hareen sekretuak eta ibilerak  
kontetako aukerarik izango  
genduanik.



*Rufino Arrola*



9 788493 290504



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte